TXIRRINDULARITZA: JON ODRIOZOLAK LEHIATZEARI UTZIKO DIO /10

Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2004ko azaroaren 26a • IV. urtea • 178. zenbakia • DOAN BANATZEKOA

European Newspaper AWARD
Goienkaria
ONDOEN DISEINATUTAKO TOKIKO AGERKARIA EUROPAN

JOSEBA UGALDE / EZKER BATUA

"Herritarrekin adostasuna bilatzea da erakundeek arazoak saihesteko modu bakarra" **/8**

Goienka2a

Kepa Junkerak azken diskoa aurkeztuko du gaur Eskoriatzan

BARRUAN, GEHIGARRIA: ETXEKO DEKORAZIOAREN GAINEKO 8 ORRIALDE

JON BEREZIBAR

Harria atera nahi dute Udalatx barrutik

Epe luzera Udalatx barrutik ustiatzeko aukerak aztertzen dabil uneotan Kanpanzar harrobiko enpresa. Herrian izan dezakeen eragina ikusita, Inazio Lakuntza alkateak oso balorazio ona egin du, "interesgarria" deritzo-eta proposamenari. Modu berean, Eusko Alkartasunak ondo deritzo baina ingurumena errespetatzea eskatzen du. Alderdi Popularrak dio proiektu horrekin etorkizunari aurrea hartuko zaiola. Arrasateko udalbatzako gainontzeko alderdiek zalantza handiagoak dituzte: Alderdi Sozialista balorazioen zain dago eta Ezker Batuak, berriz, zalantza handiak ditu proiektuaren gainean, eta herri galdeketa egitea eskatu du. Aralarrek ere uste du baloraziorako azterketa gehiago behar direla.

ASTEKO GAIA: ABENDUAREN 1EAN DA MENDEURRENA

Monzon jaio zela 100 urte

Politikari eta artikulugile bezala gogoratzen du Euskal Herriak; baina mendeurrena aitzakia ona da Bergarako seme horren beste alderdi batzuk gogora ekartzeko. Izan ere, ezagutu zutenek dioten moduan, "Bergarako pertsonarik aberatsenetariko bat" dugu. Iparraldean, adibidez, ezagunago izan zen literato bezala politika gizon bezala baino; eta Monzonek askotan idatzi izan zuen Bergararekiko zuen herriminaz eta herriak inspiratzen zionaz. **/3**

Telesforo Monzon. BUA

Espainiako Erregea dator gurera, MCCk gonbidatuta

Juan Carlos I.a erregea Arrasatera etorriko da abenduko bigarren astean, hilaren 9an seguruenez. MCCk ez du albistea konfirmatu, baina lau haizeetara zabaldu da. Joan den martitzenean, Fagor Etxetresnen Kontseilu Sozialean aztertu zuten bisitaren gaia. Fagorko hainbat bazkidek ez dute begi onez ikusi Espainiako Erregea hona etortzea. **/4**

Makinak alokatu eta saltzen ditugu
Eraikuntzarako eta obra publikorako

ALKIDEBA

Soluzioak errentan.

Maltzaga bidea – 20590 Soraluze
Tel.: 943 75 15 54 . Faxa: 943 75 00 31

Goitondo industrialdea, 3. pab. 11-2 partzela, 48269 Mallabia – Bizkaia
Tel.: 943 17 13 62 . Faxa: 943 17 14 56

Astelehenean, pilota gehigarria

Astelehenako Goienkaria-k ibarreko pilota taldeen gaineko zortzi orriko gehigarria kaleratuko du oraingo astelehenean.

ARRASATE

Egunero 61.000 ibilgailu sartu edo ateratzen dira

Datu kezkagarriak kaleratu dituzte Arrasateko zirkulazioaz: egunero 61.000 auto sartu edo ateratzen da herritik; gehienek, 27.000 autok, herria zeharkatzen dute; 23.000, berriz, erdialdean sartu edo bertatik ateratzen dira; auto gehienetan (%70) pertsona bakarra joaten da, eta ibilgailuen kopurua urtez urte haziz doa (%2,4). **/5**

BERGARA

Iñaki Anasagastik batzokiaren gainean egingo du berba

Iñaki Anasagasti, EAJko ordezkaria Espainiako Senatuan, Bergaran izango da gaur, egubakoitza, iluntzean. Hitzaldia egingo du, *Mendeurren baten inguruko gogoetak* izenburukoa. Bergarako batzokiaren 100. urteurrena ospatzeko ekitaldien barruan antolatu dute gaurko berbaldia. **/4**

DEBAGOIENA/4-5 • IRITZIA/6 • HERRIZ HERRI/7 • KIROLA/10 • NON-ZER/16-17 • SAILKATUAK/18 • ESKELAK/19 • DENBORA-PASA/20 • TELEBISTA/22

udagoieneko
2004 5. edizioa
ostera

Antolatzailea
Topagunea
Euskara Elkarteen Federazioa
Babesleak
Bizkaiko Foru Aldundia
Kultura Saila
Diputación Foral de Bizkaia
Departamento de Cultura
bbk
Laguntzailea
ARRIOLA KULTUR ARETOA

Maddi Oihenart
Josetxo Goia-Aribe
"Ilhargi min" diskoaren aurkezpena

ELORRIO
Arriola antzokia
abenduak 3
ostirala
22:30ean
sarrera: 9€

MULTIOPTICAS
Gabonetako Opariak

P.S.P.: 50€
Gabonetan 42€

P.S.P.: 45€
Gabonetan 33€

P.S.P.: 45€
Gabonetan 35€

Ez metagarria beste eskaintza batzuetara.

R.P.S. Nº 190/04 I.L.G.

Zure Varilux®
PROGRESIBOAK egokituta,
opari hau:
ESSILOR

Meteorologia estazio zoragarria

Crizal ALIZÉ rekin eguna garbiago.
Erreflexu-kontrako tratamendu berria, ez daukazu garbitu beharrik.

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75 • BERGARA
J. Carlos Guerra • Tel.: 943 79 29 95 • ARRASATE

Monzon: bergararra, idazlea eta politikari aurrerakoia

Abenduaren 1ean beteko dira 100 urte Telesforo Monzon jaio zela

LEIRE KORTABARRIA

Bukatu dira Telesforo Monzonen jaiotzaren mendeurrena dela eta antolatutako omenaldi ekintzak. Mendeurrena, izatez, datorren eguaztenean da, abenduaren 1ean, eta data bera da aitzakia onenetariko bat, fundazioek antolatutako ekintzez gain, sorlekuan, bergarar unibertsal hori gogoratzeko, batez ere, hain begi-bistakoak ez ziren arloetan.

BERGARARTASUNA

Abertzale sutsu, ekimen handiko politikari, primerako hizlari, artikulugile oparo… Horiek guztiak izan zen Telesforo Monzon, eta horrela da ezagunen. Baina beste alderdi ezezagunago batzuetan horietan bezain pertsona interesgarria zen. Gainera, bere nortasunak hamaika anekdotari bide eman zion.

Esaterako, lau hamarkada kanpoan eman zituen arren, *bergarartasuna* beti gorde zuen Monzonek, eta hona bueltatu zenean, 1977an, garbi ikusi zen hori. Martin Garitanok eta Monzonek jaiotetxe bera dute –Olaso dorrea–, eta Garitanok dioenez, Bergarara itzuli zenean, jakin-min handia zuen eta hemengo egoeraz asko galdetzen zuen. Herriak bat egin zuen hiletan ere. Hala ere, hartu-eman hori ez ei da beti hain beroa izan, eta ezagutu zutenek eskatu izan dute herrian tarte handiagoa izan zezala.

GOIENKARIA

Eusko Jaurlaritzako Gobernazio Sailburu moduan, 1936an.

BUA. ROMAN LARRAÑAGA FONDOA

Monzon eta emaztea, 1977ko Bergarako zinegotziekin.



GOIENKARIA

Askatasunaren Martxa, Aranzuriko zelaian.

"OPTIMISTA HANDI BAT ZEN"

Poeta, konpositore eta antzerkigile moduan ezagunago zen Iparraldean politikari moduan baino. Izan ere, Eusko Kulturaren Alde elkarteak Literaturako Nobel sarirako hautagai bezala aurkeztu zuen 60ko hamarkadan. Herri xeheak, eguneroko pasadizoek… inspiratzen ei zuten bereziki (Patxi Larrionek idatzi zuenez, "Gatzagan, Madrildik itzultzean, artzain neska gazte bat ikusita piztu zitzaion kontzientzia: *abertzalea naiz*"), eta bere idatzietan sumatzen ei da "optimista handi bat" zela, eta "baikortasun hori bere herriari txertatzen" saiatu zela, Koldo Izagirreren esanetan. Horrez gain, bere euskara goraipatu zuen askok, akaso jakin gabe gaztaroan ikasten egon zela baldartutako euskara freskatzeko.

Politikan ere, aurrekari izan zen zentzu askotan: biografoek idazten dute bere burua "nafartzat" aldarrikatzen lehenengoetarikoa izan zela.

MARTIN GARITANO

Olaso dorretxean jaio zen, Telesforo Monzon bezala

Monzon bezala, Olaso jauregian jaio zen Martin Garitano. Bere esanetan, Monzon "oso pertsona alaia" zen, musika eta poesiazale handia. Azpimarratzen du gazteekin zuen hartu-emana: batez ere Iparraldeko urteetan, gazteekin berba egitera ohitu zen, eta hala jarraitu zuen Hegoaldera itzuli zenean ere. Bitxikeria bat ere gogoan du: bazkal aurretik whiskya edan ohi zuen.

MONZONEN ALARGUNA ZENA

Maria Josefa Ganuzari irakurtzen zizkion poesiak

Maria Josefa Ganuza zenak 2001ean GOIENKARIArendako Monzonen alde pertsonalena gogoratu zuen: "Maite izan dudan gizona zen. Niretako guztia zen. Ni nintzen bere poesiaren termometro: niri irakurtzerakoan, distraitu eta beste aldera begiratzen banuen zera esaten zuen: 'Honek zein txarra behar duen!'. Aldiz, malkoren bat isurtzen banuen, poesiak ona behar zuen".

PANTXOA ETA PEIO

Monzonen abestiekin osatu zuten euren lehenengo diskoa

68an, hitzaldi baten, Monzonengana joan eta abestu egin zioten. "Esan zigun bazituela hiruzpalau abesti eta emango zizkigula. Hurrengo urtean atera genuen lehen diskoa", diote. Bergararraren nortasunak ere inpresio handia egin zien: "Monzon berba bakar batekin definitu beharko bagenu, *duintasuna* litzateke. Kategoriako gizona zen hura, umore handikoa, gainera".

MONZONEK, BERGARAZ

Donibane maite zuen, baina Bergaraz akordatzen zen asko

Bergararekiko herrimina etortzen zitzaion Monzoni, "batez ere, Mendekosteetan", idatzi zuenez. Honako hitzak ere bereak dira: "Eliza dotore, antzinako kale estu eta jauregi zahar haien itzalean zenbait ola berri ere sortu direla, bergararren elkarrenganako anaiagoak ez du arlotekeria usainik. Sorterriari dakarkiogun maitasunak biltzen bide gaitu elkarrekin".

Txuringo
Jatetxea

Osintxu
Tel.: 943 76 48 63

NEGUAN
Igandeetan itxita,
baina enkarguak hartzen dira

SANTA LUZIA
Menu berezia abenduak 10 eta 11

- Urdaiazpiko ondua
- Patea
- Frijituak
- Txahal-entrekota edo bakailao-kokotxak
- Tarta izozkiarekin
- Ardo berezia
- Kafea

Prezioa: **21** euro + BEZa

Ikastaroak hastear daude

Berehala!

Autocad
Photoshop
Web orrien diseinua
Office integrazioa
Contaplus
Nominaplus
Finantziar kontabilitatea

AKADEMIA BASTIDA

943 79 35 33 bastida@bastida.es

GOIENKARIA

Espainiako Erregeak Arrasatera egingo duen bisitaren helburuetako bat izango da Garaiako lehen harria ipintzea.

Espainiako Erregea Arrasatera etorriko da, MCCk gonbidatuta

Abenduaren bigarren astean etorriko dela uste da, seguruen, hilaren 9an

GOIENKARIA

MCCko zuzendaritzak ez digu Juan Carlos erregearen bisitaren kontua ziurtatu, baina lau haizeetara zabaldu da. Oraingo martitzenean, Fagor Etxetresnen Kontseilu Sozialean aztertu dute bisitaren gaia, eta kontrako iritziak entzun dira.

GOIENKARIAk jakin duenez, Mondragon Korporazioko arduradunek ahalegin berezia egin dute Espainiako Erregea Arrasatera etor dadin. Urte bi pasatu dute bisita horren konfirmazioaren zain, eta, itxura guztien arabera, abenduaren bigarren astean izango da Arrasaten Juan Carlos I.a. Adierazgarria da, bestalde, MCCk eguna konfirmatu ez izana, horrelakoetan nahiko aurrerapenekin jokatzeko ohitura baitu.

Helburu bi izango lituzke bisitak: batetik, Garaia ikerketa guneko lehenengo harria jartzea, eta bestetik, Garagartzan Fagorrek handitu duen lantegiaren inaugurazioan parte hartzea.

Martitzenean, bisitaren gaia aztertu zuten Fagor Etxetresna Elektrikoen Kontseilu Sozialean. Kontua da Fagorko hainbat bazkidek ez duela begi onez ikusi Espainiako erregeari Arrasatera etortzeko gonbita egin izana.

MCCk ez du albistea konfirmatu eta sekretismoa nagusi da bisitaldiaren inguruan

Fagorko bazkide batek GOIENKARIAra bidalitako gutunean esaten denez, Espainiako Erregeari gonbita egin izanak posizionatze politiko jakin bat adierazten du MCCren aldetik.

KAZETARI UGARI IZANGO DA

Espainiako Erregearen bisitaldia dela-eta, ia 100 kazetari izango da Arrasaten albistearen berri emateko. Sasoi batean Trefasaren aparkaleku izandakoan 300 gonbidaturendako karpa jarriko dute. Era berean, beste hainbat agintariri ere gonbita egin diete: Ibarretxe lehendakariari eta Gonzalez de Txabarri ahaldun nagusiari, besteak beste. Garaiako bazkideak dira MCC, Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Diputazioa, SPRI eta Arrasateko Udala. Hortaz, erakunde horietako hainbat ordezkari ere izango da.

Iñaki Anasagastik hitzaldia egingo du gaur Bergaran

Bergarako batzokiaren 100. urteurrenaren gainean

GOIENKARIA

Iñaki Anasagasti, EAJko ordezkaria Espainiako Senatuan, Bergaran izango da gaur, egubakoitza, iluntzean. Hitzaldia emango du, *Mendeurren baten inguruko gogoetak* izenburukoa.

Bergarako batzokiaren 100. urteurrena ospatzeko ekitaldien barruan antolatu dute gaurko hitzaldia. Lau ekitaldi antolatu dituzte mendeurreneko ospakizunetarako. Orain dela aste bi, Javier Clemente, Juan Luis Larrea eta Iñaki de Muxikak euskal selekzioaren gainean jardun zuten. Datorren eguenean, hilaren 2an, berriz, Juan Luis Bikuñak idatzi duen *Bergarako batzokia: 100 urte* liburua aurkeztuko dute. Aurkezpenean, liburuaren egilea eta Xabier Arzalluz izango dira.

Amaitzeko, abenduaren 16an, Jose Manuel Castells eta Xabier Ezeizabarren estatutu politiko berriaren gainean egingo dute berba. Hitzaldi guztiak 19:30ean dira Miguel Altuna institutuan.

Patxi Cabo, atxilotuta, Eskualde Ospitalean

Joan den astean Espainiako poliziak Euskal Herrian atxilotu zituen 20 lagunetatik 11 aske utzi dituzte. Debagoienean, bi atxilotu zituen, biak Antzuolan: Amaia Mundiñano eta Patxi Cabo. Lehenengoa aske utzi zuten barikuan, 1.000 euroko bermea ordainduta eta hiru egunean inkomunikatuta egon ostean; Soto del Realera eroan zuten Cabo, zapatura arte inkomunikatuta egon eta gero. Hala ere, martitzenean, kartzelatik Arrasatera ekarri zuten, ospitalera (argazkian), ebakuntza egin behar ziotelako. Han dagoen bitartean, elkarretaratzea egingo dute ospitale aurrean. Hainbat atxilotuk tratu txarrak salatu dituzte. Amaia Mundiñanok esan du "gogorra" izan dela. Amnistiaren Aldeko Batzordeek borroka egunа deitu dute gaurko. /GOIENKARIA



Egunero, 61.000 ibilgailu sartu edo irten egiten dira Arrasatetik

Ikerketa egin duen enpresaren arabera, kopurua izugarria da

GOIENKARIA

Datu kezkagarriak kaleratu dira Arrasateko trafikoaz. Egunero, 61.000 auto sartu edo ateratzen da Arrasatetik. Gehienek, 27.000 autok, herria zeharkatzen dute. 23.000 auto, berriz, erdialdean sartu edo bertatik ateratzen dira.

JON BEREZIBAR

Egunero 23.000 ibilgailu Arrasate erdialdean sartu edo bertatik ateratzen da.

Kataluniako Intra izeneko enpresa ari da trafikoaren inguruko ikerketa egiten, eta lana bukatu barik badago ere, dagoeneko datu kezkagarria ondorioztatu dute: 61.000 automobil sartu edo ateratzen direla egunero Arrasatetik. Herriak dituen azpiegiturak kontuan hartuta, kopurua gehiegizkoa eta izugarria dela ohartarazi dute adituek.

Kontuan hartzeko beste datu batzuk ere eman dira aditzera. Esaterako, auto gehienetan (%70) pertsona bakarra joaten dela, eta ibilgailuen kopurua urtez urte haziz doala (%2,4). Arrasaten, 10.052 automobil dago. Automobilen jatorriari dagokionez, gehienbat inguruko herrietakoak joaten dira Arrasatera. Aretxabaletatik (%15,7) eta Bergaratik (%12,6). Era berean, kanpora egiten diren bidaia gehienak Aretxabaletara egiten dira (%23,1).

Arrasateko Udalak mugikortasun plana egingo du, eta orain datuak biltzen ari dira. Gabonetarako, behin betiko datuak emango dituzte aditzera.

Bailaran hainbat ekintza egingo dira Euskararen Eguna ospatzeko

GOIENKARIA

Abenduaren 3an ospatuko da Euskararen Eguna, eta Debagunek egun horrekin lotutako boligrafoak banatuko dizkie bailarako 14-18 urte bitarteko ikasleei. Bergaran, Eskoriatzan eta Aretxabaletan ere izango da beste ekintzarik.

Bergaran, EHEk, AEK-k eta Jardun elkarteak esku hartu dute egun berezi horren antolaketan. Eguerdian, euskararen aldeko mezuak idazteko mural erraldoia jarriko dute Munibe plazan. Arratsaldez, eta haurren txokoan, marrazkiak egiteko aukera izango da, eta iluntzean Telesforo Monzon zenari omenaldia egingo diote. Bertsolari, dantzari eta kantariek esku hartuko dute. Bukatzeko, bertso emanaldia izango da Pol-Polen.

ARETXABALETA ETA ESKORIATZAN

Aretxabaletan, Loramendik antolatu ditu hainbat ekintza datorren egubakoitzerako, eta Eskoriatzan Udalak eta ikastetxeek. Azken horretan, *Esanak esan, euskara* leloa izango duen kartela jarriko da plazan, eta gauean antzerki emanaldia izango da. Aretxabaletan, berriz, umeendako ekintzak nagusituko dira arratsaldetik aurrera. Buruhandiak eta trikitilariak izango dira, besteak beste. Loramendi elkartekoek ez dute orain arte egun horrekin lotutako ekintzarik egin, baina aurten zerbait antolatzea pentsatu dute, *Euskararen egun internazionala* leloarekin.

DEBAGOIENEAN LABUR

Aipamen berezia jaso dute 'Goiena.net'-ek eta GOIENKARIAk, diseinuagatik

Iberiako Penintsulako diseinu oneneko agerkarien artean jaso dute aipamena GOIENKARIAk eta *Goiena.net*-ek, joan zen astean Coruñan, *La Voz de Galicia* egunkariaren Prentsa Museoan egin zen kongresuan. GOIENKARIAk bi aipamen jaso zituen: mantxetaren inguruan sumarioak aurkezteko moduagatik eta azalean kolorearen erabilerarengatik, eta *Berrigara* astekariaren azal bat, bere xalotasun, kalitate grafiko eta argitasun kontzeptualarengatik. *Goiena.net*-ek aipamen bat: informazioa eta testua aurkezteko moduarengatik.

Kalitate Saria eman diote Fagorreko egosketa negozioari, Hego Amerikan

Fagorko egosketa sailak nazioarteko sari bat jaso du, Costa Rican, Hego Amerikako Estatu Buruen Gailurrean. Enpresa pribatu handien atalean jaso du kalitate saria Fagorrek. Iberoamerikako herrialdeetako enpresak lehiatu dira sariketan. Enpresen kalitatea nabarmendu eta aitortzea da lehiaketa horren helburu nagusia. Fagorri eman diote saria "Kalitate Kudeaketa aintzat hartuz" egiten duelako lan eta, "etengabe hobetzeko ahaleginari esker, emaitza bikainak" lortzen dituelako.

Ibarreko sei musika talde Euskadi Gaztea Maketa Lehiaketan eta Gaztemaniak CDan

Zapatuan emango dira ezagutzera Euskadi Gaztea Maketa Lehiaketako aurtengo irabazleen izenak. Lehiaketara 200 talde aurkeztu dira eta 20 onenen artean egingo dute aukeraketa. Ibarreko lau talde daude aukeratuen artean: Malenkonia, Isarevolution, Ozen eta Muted, laurak ere Danbakan dihardutenak. Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiak 8. Gaztemaniak CDa kaleratu du: Sharon Stoner eta Potemkin (hauek ere Danbakan) taldeen abesti bada daude CDan.

Ibarreko PSE-EE Eskualde Ospitale berria egitearen alde agertu da, oraingoaren ordez

Iñaki Pierrugues PSE-EEko Eskoriatzako zinegotziak eskatu du Debagoieneko Eskualde Ospitale berria egitea, oraingoak ez dielako erantzuten debagoiendarren beharrei. Pierrugues oraingoa handitzearen aurka azaldu da, gune industriala ez delako egokiena ospitalearendako eta handitzekotan ez liratekeelako bermatuko beste zerbitzu osagarri batzuk (aparkalekua, berdeguneak...).

Eskoriatzako Ibarraundi museoak ateak irekiko dizkie domekan herritarrei

Eskoriatzako Ibarraundi museoak ateak irekiko ditu oraingo domekan, barrutik ikusi nahi dutenek aukera izan dezaten. Hauxe izango da ordutegia. 11:00-14:00 eta 16:00-20:00. Eskoriatzako Udalak birgaitu egin berri du museoa (877.179 euro), baina datorren urteko San Pedroetan inauguratuko dute.

autonomoentzako eta mikroenpresetarako doako **mintegiak**

Segurtasuna Interneten, konpondu gabeko arazoa

Debagoiena
abenduak 2
ARRASATE
Mondragon Goi Eskola Politeknikoa (Iraunkor)
Ordutegia: **18:00-20:00**

Jakin ezazu zer onura ekar ditzaketen Informazioaren Teknologia Berriek Enpresa Txikien kudeaketan.

Hirugarren mintegi honetan, **eraso, arau-hauste edo ardura ezaren aurrean zure negozioa nola egokitu eta babestu** dezakezun erakutsiko dizugu: birusak, segurtasun kopiak, zabor posta, Datuak Babesteko legea, etab.

Informatzeko eta izena emateko:
902 252 595
www.miramondigital.com
cursos@miramondigital.com

Antolatzailea: Miramon Enpresa Digitala

Sustatzaileak: Eusko Jaurlaritza Gobierno Vasco · Gipuzkoako Foru Aldundia Diputación Foral de Gipuzkoa · euskadi · e-gipuzkoa · SPRI

KM 0000
Azken automobilak!!!

MUGARRI
Araba Etorbidea, z/g
ARRASATE
www.mugarri.es

Ford
gozatzeko pentsatuak irauteko eginak

Gutunak

Espainiako Erregea

Espainiako Erregea Arrasatera etorriko da, Fagor Etxetresnak eta MCCk gonbidatuta.

Gure mugimendu kooperatibistak dituen 50 urteotan, batzuetan bestetan baino arrakasta gehiagorekin, gure masa sozialaren aniztasuna errespetu osoz mantentzen saiatu gara. Euskal Herriaren joan-etorri sozial eta politikoen aurrean neutraltasuna mantentzen saiatu gara. Hori izan da, azken urteotan izan diren gertaera politikoetan, Lizarra-Garazi edota Ibarretxe plana adibide gisa harturik, MCCk bere posizionamendua agertu ez izanaren zergatia edo arrazoia. Ildo beretik jarraituz, hori izan da Espainiako Erregea bere 29 urteko agintaldian zehar gure kooperatibetara ekarri ez izanaren arrazoia. Duda izpirik gabe, espainiar monarka ekartzeak erabateko posizionamendu politiko irmo eta sendoa suposatzen du.

Egoera honetan, gogoeta berehala datorkigu: zergatik, zeinen edo noren izenean erabakitzen du MCCko zuzendaritzak, gaur eta orain, azken urteotako neutraltasun hori apurtzea?

Honekin guztiarekin, MCCko zuzendaritzak, Fagor eta gure egitura eta pertsonen hobe beharra bilatu baino gehiago, gure arteko liskarra bilatu nahi duen susmoa sortzen zait; ez dirudi beraien erabakiarekin sortu ditzaketen liskar eta ezinegonak beldurtzen dituenik. Neutraltasuna izanik gure organizazioaren izena eta izana; nola liteke beraien pentsaera eta sentsibilitatea kooperatibaren ideologiarekiko gailentzea?

Mugimendu kooperatiboan erabaki honek sortuko duen kritika soziala ezin dezakegu ahaztu. Gure adiskide, lagunarte eta kooperatibista ez diren senideen aurrean, Mondragoeko mugimendu kooperatibistak dituen bitxikeria edota beste organizazioekiko ditugun desberdintasunak defendatu ditugun bazkideak asko gara. Gure lana eta gure inguruan sortu dugun aberastasuna bitarteko direla, herri baten eraikuntzarekin konprometituta gauden mugimendu bat gara, Euskal Herria izena duen herriaren eraikuntzan alegia. Bisita honen ondorioz, urte luzez izan den oreka politikoa bertan behera gelditu den honetan, oso zaila suertatuko zaigu orain artean mantendu ditugun teoriak defendatzen jarraitzea.

On Jose Maria Arizmendiarrieta jaunak sarritan errepikatzen zuen bezala, pertsonak dira gure organizazioaren funtsa, oinarria eta mamia. Fagor eta MCC osatzen dugun pertsonok sentsibilitate sozial eta politiko determinatu bat dugu: bakoitzak berea. Eta gure zuzendarien betebeharra da hori errespetatzea, zaintzea eta mimatzea.

Espainiako Erregeari egindako gonbit honekin, gutariko askoren barrenbarrenean zerbait puskatu dute. Baliteke gure artean zenbait gerente eta lehendakarik gure printzipio kooperatiboen defentsan jarraitzea. Nireak, berriz, 2004. urteko abenduaren egun batean, Espainiako Erregearekin batera joango dira.

ION DORRONSORO, FAGOR-EKO BAZKIDEA
Arrasate

Eskerrik asko, guztioi

Azaroaren 12an plazaratu genuen datorren urteko Kilometroak Txupinazo jaiaren bitartez. Eskerrik asko, guzti-guztioi: prestaketa lanetan jardun duzuenoi, bertara etorritakoei, Leintz bailarako udal eta ordezkari politiko guztioi, enpresa, kooperatiba eta erakunde guztioi, oholtza gaineko parte-hartzaileoi... Lehen urratsa besterik ez genuen eman, baina dagoeneko Kilometroak 05 Leintz bailaran bizi garenon guztiona da.

Hemendik, beste hainbat lanetan diharduzuen lantalde guztioi ere, animo eta eskerrik asko!

KILOMETROAK 2005, BATZORDE NAGUSIA
Leintz bailara

Amets egin dut

Ibarretxe lehendakariak Madrilen kupoari buruz Ekonomia Ministroarekin zuen bilera bertan behera utzi du.

Zapaterok bere kabinetea bildu du, eta gertatutakoari erantzuteko presazko neurriak iragarri ditu gaur arratsalderako. Alderdi guztiek kale agerraldia antolatu dute larunbaterako. Badirudi Bilbon ezagutu den erraldoiena izan daitekeela. Hori dela-eta, Barne Kontseilariak trafikoa desbideratzeko neurriak jarriko ditu martxan.

Sindikatuek ordubeteko lanuztea konbokatu dute ostegunerako eta, gure informazioaren arabera, lantegi handienek hartua dute deialdiaren aldeko erabakia. Dendak eta garraioak ere iritzi bereko azaldu dira. Azken hauek larunbateko manifestaziorako autobus zerbitzua eskainiko dutela aurreratu dute.

Azken orduan, larunbateko derbia igandera pasatuko dela jakin izan dugu.

Egunotan, ia ez dago beste gairik albistegietan eta hedabideetako langileek ere lanuztearekin bat datozela iragarri dute.

Salsa rosa programak bere emanaldia eten egin du gaiari buruzko azken berriak eskaintzeko.

Ikastetxeetan saio bereziak egingo dira gertakizunaren inguruan. Unibertsitateko ikasleek pankartak jarri dituzte fakultate gehienetan eta eguerdian manifestazio bat burutuko dute kanpusean.

Apezpikuak Gutun pastorala zuzendu die elizbarrutiko kristauei.

Kalean aurpegi ilunak ikusten dira.

"Zer gertatzen da?", galdetzen du haurrak.

"Beste emakume bat erail dutela", erantzuten diote gurasoek.

Gure ametsa egia bihurtuko balitz? Eta aurtengo azaroaren 25eko "Genero indarkeriaren kontrako Nazioarteko Eguna" azkena balitz?

Egun honi kaduzitate fetxa ipintzea denon kontua da. Zer egin dezakegu ametsa egia bihurtzeko? Zer egin dezakezu?

ZUTIK
Debagoiena

Utzi bakean!

Euskalduna, kontuz ibili! Ez pentsa lasai bizitzeko moduan izango zarenik, edozein egunetan legearen borreroek harrapatu eta infernua zer den erakutsiko baitizute. Ez pentsa salbu zaudenik, ez duzu ulertuko zergatik aukeratu zaituzten, hemen jadanik ez baitu arrazoiketak balio, sufrimenduaren hizkuntza besterik ez baitute ulertzen.

Urritik hona 62 euskaldun atxilotu dituzte indar polizial desberdinek. Eta azkenaldian ohikoa da egunkarietan tortura testigantzaren bat irakurtzea: *bañera*, elektrodoak, eraso sexualak... Guardia Zibilak hiru emakume bortxatu ditu!

Ez dira beldurrezko ipuin batetik ateratako kontuak, errepresio gordin eta basatienak txikitutako euskaldunen lekukotza gogorrak dira. Gobernu espainolak, oraindik ere, existitzen ez direla dioen torturaren testigu zuzenak dira.

PSOE gobernu espainolean egonda, Enrique Rodriguez Galindo kartzelatik irten da. Euskal presoen sakabanaketa areagotu dute eta Euskal Herriko zenbait erakundek legez kanporatuta jarraitzen dute.

Euskaldunoi ez zaizkigu gure eskubideak onartzen, kolpeka kentzen dizkigute nazio moduan dagozkigunak, baita pertsona moduan dagozkigunak ere.

Nork kondenatzen du kontrol soziala? Zeinek salatzen du tortura? Nork onartzen du elkarrizketa errepresioz zapaltzea? Euskaldunok libreki hautatu behar dugu geurea, indar okupatzaile hauen zapalketarik gabe, gobernuen joko zikinik gabe. Denon beharra da aurrera egitea, eta gaurtik hasita, guztion ahotatik irten behar da gehiegikeria guzti hauenganako ezetza. Nazkatuta eta haserre gaudelako. Utz gaitzatela bakean!

AMNISTIAREN ALDEKO MUGIMENDUA
Debagoiena

Lapurrak (eta 11)

Ander Rodriguez-en bigarren gutunari erantzun beharrean aurkitzen naiz egin nizkion galdera batzuk direla-eta. Gaiari eutsiko diot eta ez naiz sartuko Arrasaten mesede baina Euskal Herriko udalerri askotan kalte egin dion "D'hont sisteman". Bestela, partiduen finantzazio bidegabea edota auskalo beste zein gai zabalduko zenuke hurrengoan Arrasaten egin duzuen lapurreta ez onartzearren.

Baina, bueno, nire gutunean "oztopo legislatiboa ekiditeko" bideak esplikatzeko eskatzen nizun. Egon bazeudela esaten baitzenuen. Bi ematen zenituen:

Lehenengoa, indarkeria gaitzestea. Honek ez ditu ez hemen ez inon arazoak konpontzen. Gainera, bide hau predikatzen duzuenok beste alde batera begiratzen duzue behin eta berriz tortura salaketen aurrean edota indarkeria estatu espainol/frantsesek, Ertzaintzak eta abarrek praktikatzen dutenean. Hau dela-eta, gaitzespen hipokritek, niretzat, behintzat, ez dute inongo baliorik. Aipamen txiki bat egingo dut, gainera. Gogoratzen duzu zuen botoei esker Espainiako presidentea den ZPren alderdikide zen Danborenea? (HZko lista "garbiak" legez kanporatu zituen alderdikoa zena?). Honek, beste "demokrata" askoren moduan, GALeko ekintzak gaitzesten zituen eta gero denok ikusi dugu saltsan zegoela. Beraz, hipokrisi gehiagorik ez, arren.

Bigarrena: zerrenda "garbiak" aurkeztea. Lehenik eta behin, azaldu nahiko nuke legez kanporatzea Euskal Herriko sektore dinamikoena neutralizatzeko erabaki politikoa izan dela. Hau dela-eta erabaki hau hartu dutenen eskuetan dagoen "justizia" bera da sektore hau kanpoan geratzeko zaindari lana beteko duena.

Bigarren bideari dagokionez, HZko zerrenda duzu adibide garbiena. Hau zuk diozun bezala "garbia" zen, baina, hala ere, legez kanporatu zuten. Hala ere, ezker abertzalea ez al da libre berak nahi dituen pertsonak aurkezteko? Eta Herri Anitzari botoa eman dioten pertsonek ez daukate eskubidea nahi dutenari bozkatzeko. 92.716 pertsona horiek ere ilegalak al dira? Itxuraz, tutelajea hitza duzu gogoko, zer irudituko litzaizuke norbaitek zuen zerrendetan nork joan behar duen esango balu? Aralarrek indarkeria gaitzesten du, baina hala ere alderdi honi herri bateko zerrenda legez kanporatu zioten. Akats bat ote? Espainiar "justiziari" zer axola zaio. Ez al da oztopo legislatiboa gainditzeko "justizia" honetan sinistea inozoa izatea? Lander Olazabalagak zioen moduan, beste herri batean zerrendako kide bat aldizkari baten harpideduna zelako legez kanporatu zuten. Zer da zerrenda "garbia" orduan?

Herri plataforma guztietan eman diren injustizia denak aztertzen hasiz gero, gutun hau amaigabea izango litzateke, beraz, egoera hau gainditzea denon esku dago eta denon esaterakoan zuek ere barnean zaudete. Borondatea behar da, Batasunak gatazka gainditzeko Belodromoan azaldu zuen borondatea bezala. Zuen partetik eta denon partetik legez kanporatzea eta gatazka gainditzeko borondatea azalduko delakoan. Agur: Osasuna ta askatasuna.

A. ELORTONDO
Aramaio

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate

ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta,
Miguel Angel Elkoroberezibar,
Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain,
Ane Berezibar, Arantzazu Arana

SAILETAKO ARDURADUNAK
Iñaki Iturbe (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga, Natali Martínez,
Izaskun Bolinaga, Ziortza Martín,
Imanol Elortza, Amaia Mundiñano

PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate

HARPIDETZA ETA BANAKETA
Marta Leturia

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola

ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ANTZUOLA

Genero indarkeriaren gaineko berbaldia martitzenean

Antzuolako Zutik-ek antolatuta, emakumeen aurkako indarkeriaren gaineko berbaldia izango dugu datorren martitzenean, hilak 30. Nekane San Migel epaile arrasatearrak egingo du berbaldi hori, Olaran etxean, 19:00etan. Gai horren gaineko hausnarketak eta proposamenak egingo ditu San Migelek.

ELKARTASUN FESTA

Bihar, zapatua, Elkartasun Festa egingo du Anelkarrek, 19:00etan hasita. Han batutako dirua Kongon eskolak eraikitzeko izango da. /AINTZANE IRIZAR

O.E.

OÑATI

Unibertsitate pareko espaloiak babestu gura ditu Udalak

Unibertsitate etorbideko espaloiak babestu gura ditu Udalak, eta horretarako, dauden aukerak aztertzen ari da orain. Unibertsitate pareko espaloietan aparkatzeko oztopoak jarriz, gidariak autoa aparkalekuetan uztera ohitu nahi ditu Udalak. Asteburuetan, batez ere, auto asko aparkatzen dituzte Unibertsitate pareko espaloietan, eta jokaera horrek, oinezkoen mugimendua oztopatzeaz gain, Oñatiko monumentu-gunea desitxuratu egiten duela uste du Udalak. Gainera, Ibarra zein Olaiturriko aparkalekuetan sarritan toki asko egoten da autoa uzteko. Orain, Unibertsitate etorbideko espaloietan autorik ez aparkatzeko modua aztertzen ari da Udala. Dagoeneko hiruzpalau proiektu ditu mahai gainean, baina oraindik ez du ezer zehaztu. /OIHANA ELORTZA

ARETXABALETA

Euskararen Eguna ospatzeko hainbat ekintza izango dira abenduaren 3an

Orain arte egin ez badute ere, Loramendikoek Euskararen Nazioarteko Egunа ospatu nahi dute, eta horretarako makina bat ekintza antolatu dute. *Euskaren Egun Internazionala* leloarekin, abenduaren 3an, 17:00etatik aurrera, umeendako buruhandiak izango dira, eta pertsonaia bitxi batek bisita egingo die gaztetxoei. Eguraldi ona egiten badu, gainera, egun horrekin lotuta ludotekan egingo dituzten marrazkiak erakusgai jarriko dituzte Durana kalean. Trikitilariak ere izango dira. /MARIA AGIRRE

ARAMAIO

Espainiako Administrazioak salatu du Udala berriz ere

Preso baten senideei kartzelako bisitetarako dirulaguntzak emateagatik, epaiketa izango du martxoan Aramaioko Udalak. Estatuko Administrazio Orokorrak egin du salaketa oraingoan ere. Azkenaldian Estatuak hiru salaketa politiko egin ditu Udalaren aurka. Lehena presoak herriratzearen aldeko pankarta bat erostearren eta orain dela gutxi *Berria* egunkariari dirulaguntzak emateagatik epaiketa izan dute. Alkateak esan du "harrituta" dagoela, eta "norbait zelatan dabilela ematen duela" gehitu du./J.B.

ARRASATE

Zailtasunak dituzten guraso bakarrei lagundu nahi die Udalak

Guraso bakarren behar eta arazoei erantzuten irakasteko programa aitzindaria abiarazi zuen pasa den irailean Udalak, *Bidetxur* izenekoa.

Helburua da guraso bakarreko familien arazoak aztertu eta eskuragarri dituzten baliabideak ezagutzea. Dagoeneko programaren erdia egin dute eta antolatzaileak gustura daude jasotzen ari diren emaitzekin. Hamar emakumek osatutako taldea da. Euren egoera dela-eta, familiako eta laneko bizimodua uztartzeko arazoak dituzte eta eurendako bilgune moduko bat sortuko dute.

Azkenean, euren kabuz moldatzen jakitea da helburua, autogestioa, alegia. Izan ere, Jesus Otaño hezitzailearen esanetan: "Guraso bakarreko familiek arazo gehiago dituzten arren, horrek ez du esan gura gabezia handiagoak dituztenik". Oso kontuan hartzen dituzte familia eredu horren berezko ezaugarriak, programa aurrera eramateko orduan.

Saioetan, hainbat hezitzaileren aholkuak jasotzen dituzte Nura bitartekaritza enpresakoek. Astero biltzen da taldea Emakume Txokoan testuinguru didaktiko baten euren arazoei aurre egiten ikasteko.

Esperientzia pilotu horrek, gainera, badauka gizartean eragiten duen beste irakurketa bat. Izan ere, gaur egun zeharo aldatzen dabiltza familia ereduak eta guraso bakarrek osatzen dutena bigarren talde handiena da. /JON BEREZIBAR

Zertzelada

Guraso bakarrek, euren egoeragatik, zailtasun handiagoak dituzte, baina horrek ez du zertan esan gura horregatik gabeziak dituztenik.

BERGARA

Emakumeen indarkeriaren kontrako Udalaren akordioa

Atzo, azaroak 25, Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Eguna zela eta, Bergarako Udalak konpromisoa hartu du emakumeen berdintasunaren alde eta euren aurkako indarkeriaren kontrako politika aktiboa izateko. Era berean, udalerriko emakumeak eta, batez ere, gizonak indarkeria honen aurkako jarrera aktiboa izatera animatzen ditu Udalak, indarkeria hau ez onartuz, isilik ez geldituz, eta biktimei lagunduz. Emakunderen adierazpen instituzionalarekin bat egin zuen udalbatzak aho batez.

Joan den egubakoitzean, hilaren 19an, egin zuten osoko bilkura. /E.M.

ARTXIBOA

Alderdi guztiek bat egin zuten adierazpen instituzionalarekin.

ESKORIATZA

Dendariek bat egin dute herriko komertzioak sustatzeko asmoz

Herriko dendariek komertzioak indartu guran bat egin dute. Zapatuan, esaterako, dotore jantzi eta galaafaria egin zuten. Herrian ez dago denetarik erosteko aukera eta eskoriatzar asko joaten dira kanpora horiek eskuratzera. Dendarien esanetan, arazoa da behin tokiz mugituta herrian aurki dezaketen gaiak ere erosten dituztela. Datozen hilabeteetarako hainbat ekimen antolatuko dituzte. Gabonetarako txartelak aterako dituzte, zozketak egiteko; afariak eta dendetan gastatzeko dirua banatuko dute, esaterako. /Z.V.M.

ELGETA

Kontzertua gaztetxean eta antzerkia Espaloian asteburuan

Gaur, barikua, kontzertua izango da gaztetxean, 22:30ean, hiru talde bizkaitarrekin. Markinako Oliba Gorriak eta Txato Plato eta Ondarroako Tuboskapi taldeek joko dute.

Bestalde, Markeliñe antzerki taldeak *Mambru* lana antzeztuko du domekan, 17:00etan, Espaloian. Udalak antolatu du ikuskizuna, eta, umeendako antzerkia izan arren, nagusiek ikusteko modukoa ere bada. Gerra du gai nagusi eta ikusleak dibertitzea, harritzea eta hunkitzea da taldearen helburua. /I.A.

GATZAGA

Guraso elkarteak batzordekide eta idazkari berriak aukeratu ditu

Aurreko astean Leintz Gatzagako guraso elkarteak, GURELek, bilera egin zuen. Elkarteko batzarkideak aldatzea egokitu zitzaien; bi urtean behin egiten dute hori. Batzordekide berria sartu da herriko guraso elkartean; Eneka Zankadaren ordezko kidea Edu Arana izango da. Itsaso Eginok, berriz, idazkari lanak egingo ditu Ana Esnalen ordez. Bi urtean behin egiten dituzte aldaketak, eta iaz, esaterako, lehendakaria eta batzordekide bat aldatu zituzten. /Z.V.M.

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2004ko azaroaren 26a

Arrasaten Udal Ingurumen batzordeburu eta kooperatibetako Kontseilu Sozial orokorreko kide da Joseba Ugalde (Aretxabaleta, 1951). Bere bi lan arlo horiek hizpide dira egunotan, eta horietaz berba egin dugu berarekin.

LEIRE KORTABARRIA



GOIENKARIA

Joseba Ugalde

ARRASATEKO UDAL INGURUMEN BATZORDEBURUA (EZKER BATUA)

"Erakundeek arazoak saihesteko modu bakarra da herritarrekin adostasuna bilatzea"

UDALATX HARROBI EGITEKO PROIEKTUA

"Azaroaren 29an erreferenduma egitea proposatuko dugu Udalean. Onartzen bada, sei hilabetean hori deitu eta lanak geldiarazi egin beharko dituzte"

'URKULUKO HABITAT ALTERNATIBOA'

"Proiektua Lurraldeko Zatiko Planetik kanpo utzi dute, udalak, Mankomunitatea eta debagoiendarrak batera aritu direlako, eta hori poztekoa da"

Ingurumena albiste da egunotan, hainbat kontu dela eta. Hor dago, adibidez, Udalatxetik harria ateratzeko proiektua. Ezker Batuak erreferenduma egitea proposatu du.

Hala da. Azaroaren 29ko bilkuran aurkeztuko dugu horren gaineko mozioa. Onartzen bada, Udalak sei hilabetean deituko du erreferenduma, eta dagoeneko hasita dauden zulaketa lanak geldiarazi egingo ditu. Arrasaterendako sinbolo bat da Udalatx, eta proiektu horrek oso sakonean ukitzen du mendia, oso eragin handiarekin, gainera, 50 urterako da eta. Gure ustez, herriak iritzia emateko aukera behar du.

Izan ere, Ezker Batuaren oinarrietako bat da jendearen parte-hartzea…

Guk diogu, adibidez, udal batzordeetan parte hartzeko aukera izan behar dutela herritarrek, aldez aurretik hala eskatuz gero; batik bat udal neurriren batek eragiten badio bateren bati, pertsona horri entzun behar zaiola uste dugu. Sinadura bidez erreferendumak eskatzeko ahalmena ere defenditzen dugu.

Eta, hain zuzen, herritarren parte-hartzea bultzatzen du Agenda 21 egitasmoak. Zelan aldatu da Udalaren eta zure lana Agenda 21ekin?

Prozesu zaila da, baina ondo egokitzen goaz lan estilo berrira. Izan ere, udalon ohitura izan da beti erabakiak gure artean hartzea, herritarrari kontsultatu barik, eta, batzuetan, herritarrak zinegotziak baino jakinagoak dira gai honetan edo hartan. Agenda 21en bidez, jendearen iritzia eskatzen dugu. Horren barne, Udalak proiektu bat egin eta gero, herritar kontseilu batek bere iritzia ematen du. Bestetik, inkestak ere egiten ditugu, ikastetxeetako umeak ere inplikatzen dira…

Lana luzeagoa da, baina, nire ustez, hobea ere bai. Jendearekin adostasuna bilatzea da arazoak eragozteko modu bakarra. Agenda 21en barne, Arrasateko egoeraren diagnosia egin dugu, hainbat arlo kontuan hartuta: ingurumena, ekonomia, lana, etxebizitza… eta horiek landuko ditugu orain. Sistema horrekin lantzen ari garen azken gaia da mugikortasunaren gainean berriki egin duten ikerketa.

Ikerketa horren emaitza batzuk aditzera eman dituzte: adibidez, Arrasaten 61.000 ibilgailu dabiltzala egunero, horren erdia joan-etorrirako. Zelan baloratzen duzu hori?

Ikerketaren emaitzak ezuste handia izan dira niretako. Ez nuen espero Arrasaten horrenbeste joan-etorri izatea. Beste datu batzuk ere badaude: adibidez, guk hiru bide ditugu autoendako, eta horien ertzetako eremuaren %70 autoek hartuta egoten da 08:00etatik 23:00etara bitartean. Horrek kolapsoa ekarriko du noizbait. Zentzugabekeria iruditzen zait, pertsonendako arriskutsua delako, oinezkoak bigarren mailan geratzen direlako, eta ingurumenarendako kaltegarria delako. Neurriak hartu behar direla argi dago, baina oraindik ez dakigu zeintzuk izan daitezkeen.

Tranbia izan daiteke neurri bat?

Tranbiak lagun dezake, bai. Bestalde, guk, Arrasaten, herri-autobusa dugu, baina, horrez gain, herritik kanpora joateko autobus zerbitzua penagarria da. Garraio egoerari buelta eman behar diogu, eta baita geure ohiturei ere.

Oraindik ez dakigu, ordea, tranbia noiz egiteko asmoa dagoen…

Neuk ere ez dut horren berririk. Azpiegitura asko egin gura dituzte, eta neure buruari galdetzen diot ea horiendako guztiendako dirua, ahalmena… izango den. Lehentasunei dagokienez, nik neuk, autobidea baino lehenago, tranbia egingo nuke. Orain arte dakiguna da tranbia ordu erdiro ibiliko litzatekeela eta, oraingoz, Eskoriatza-Bergara ibilbidea izango lukeela; besterik ez dakigu. Edozelan ere, nik uste dut jendeak ikusten badu maiztasun eta ibilbide onak dituela animatuko litzatekeela tranbian ibiltzera.

Astelehenean mozioa aurkeztuko du Ezker Batuak, baina beste kontu bati ere helduko diozue: *Urkuluko habitat alternatiboa* delakoaren gaineko iritzia jakinaraziko duzue hainbat taldek.

Arrasateko eta Eskoriatzako Ezker Batuko ordezkari banak parte hartuko dute hitzaldi horretan. Oro har, gure poza azaldu gura dugu Lurraldearen Zatikako Planetik kanpo utzi dutelako azkenean egitasmo hori. Eta hala izan da, hain zuzen, udalek, Mankomunitateak eta debagoiendarrek batera egin diotelako uko proiektuari, eta hori poztekoa da. Berehala konturatu ginen guztiok proiektu hori burugabekeria zela, Urkulu bezain estimatua den natura-gune bati kalte handia egiten ziolako, han txaletak, azpiegiturak… eginez.

Egitasmoan paragrafo bat utzi dute, hala ere, esaten etorkizunari begira berriro heldu ahal izango zaiola asmo horri, eta debagoiendarrek iritziz alda dezaketela etorkizunean, baina tira… Horren harira, kritika bat ere egingo dugu: hain zuzen, ez dute arrazoitu zergatik kendu duten Urkuluren gaineko egitasmoa. Nire ustez, ez zuten pentsatzen hain oposizio handia izango zutenik.

Bestelako gai batera jota, Alderdi Sozialistak aurkeztu berri du Eskualde Ospitalearen gaineko proposamena: ospitale berri bat egin behar dela. Zer deritzozu horri?

Mozioa aurkeztu zuten sozialistek osoko bilkuran, eta onartu egin zen, baina nik ez dut ondo ikusten. Gaur egungo ospitalean inbertsio handiak egin izan dira, eta, nire ustez, oso ospitale txukuna dago. Bestalde, anbulatorioa berritzeko lanak bukatzear daude. Ospitale berri bat egitekotan, eraikin hori hutsik geldituko litzateke, eta zer egin? Ez Arrasateko Udalak, ez ibarreko beste inongo udalek ere, ezin izango lukete eraikina bere gain hartu.

Nire iritziz, onena da anbulatorioaren ondoan beste eraikin bat egitea, edo anbulatorioari beste solairu bat gehitzea… Hori Osakidetzak eta arkitektoek erabaki beharko dute. Baina zuhurtasunez jokatu behar dugu: Osakidetzak defizit larria du, eta, bestalde, gaur egungo ospitalea ondo dago. Horrez gain, urtarrilean Lagun Arotik Osakidetzara pasatuko direnak 7.000 izango dira. Hor aurreikuspen asko egin ziren hasierako zenbakia –30.000 inguru– kontuan hartuta.

Kooperatibetan duzun ardura postuagatik, Lagun Aroren auzia gertutik jarraitu duzu. Ezer aurreratu da?

Ez; kontuak berdin jarraitzen du, eta negoziatzen ari dira alde guztiak. Ez dugu inongo informaziorik. Urtarrilean, familia medikua Osakidetzan izango dugu, eta oraindik ez dakigu hori zelan izango den, zer egin behar dugun… ezer ez. Komenigarria litzateke lehenbailehen akordioa egingo balute, eta horixe eskatuko genieke arduradunei.

MCCren gaineko beste kontu bat ere hizpide da eta, seguru asko, izango da datozen egunotan: hain zuzen, Espainiako Juan Carlos erregea MCCra datorrela. Zein da helburua?

Nik orain astebete izan nuen horren berri, eta noiz etorriko den ere ez dakigu zehatz: abenduaren 9an diote batzuek, 12an beste batzuek… Dakiguna da lehenik eta behin korporazioaren egoitzara joango dela, han MCCren gaineko bideoa ikustera; gero, Garagartzako lantegia ikustera eramango dute; eta Garaia Berrikuntza Poloan luntxa egingo dute azkenik. Karpa bat muntatuko dute, eta 300 bat lagun daude gonbidatuta.

Espainiako Errege-Erreginek eurek eskatu izan zuten bisitaldia egitea; bestetik, azkenaldian, Espainian oso kanpaina gogorra egin da MCCren aurka, ETA finantzatzen duela-eta esanez, eta horrek, egia esan, kalte egin dio. Hortaz, kanpaina horri aurre egiteko modua ere izango da.

2004ko Udazken Neguko denboraldi berria

*Eskuragarri dauzkazu zure Sportland eta Forum dendetan

Garibai Etorbidea, 2-6
www.forumsport.com

SPORTLAND
FORUM SHOPS

KIROLA ZEURE ESKURA

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2004ko azaroaren 26a

Leinzko neska-mutikoek batera egingo dute Eskola Kirola

Aurkeztu berri duten egitasmoan mila gaztetxok hartuko dute esku

XABIER URTZELAI

Martitzenean aurkeztu zuten Gatzagan Leintz Eskola Kirola egitasmoa. Egitasmo hori hainbat herriren arteko elkarlanaren emaitza da, gaztetxoei zuzendua dago, eta kirola du oinarri. Arrasateko, Aramaioko, Aretxabaletako, Eskoriatzako eta Gatzagako gazteak ibiliko dira hor.

Guztira mila neska-mutikoren jarduera fisikoa landuko eta kudeatuko du Leintz Eskola Kirolak. Eta egitasmo horrek aurrera egiteko elkarlanean ibili dira herri horietako Udalak, Foru Aldundia, ikastetxeak, koordinatzaileak, monitoreak, gurasoak eta kirol elkarteak. Aurkezpenean berba egin zuten Asier Mujika Aretxabaletako kirol teknikariak, Diputazioko kirol zuzendari Iñaki Ugarteburuk, Udalen izenean egon zen Gatzagako alkate Joxerra Perezek, Herri Eskolen ordezkari Kepa Altubek, eta Arizmendiko zuzendari Txaro Iraetak.

XABIER URTZELAI

Leintz Eskola Kirolaren alde ibili diren ordezkariak, Gatzagako pilotaleku ondoan.

KIROL ESKAINTZA ANTOLATZEA

Hori da martitzenean aurkeztu zuten egitasmoaren helburua: Leinzko 6 urtetik 14 urte bitarteko neska-mutikoen kirol eskaintza antolatzea, hain zuzen. Izan ere, aurkezpenean Aretxabaletako kirol teknikari Asier Mujikaren esanetan: "Jarduera fisikoaren eta kirolaren bitartez gure bailarako gaztetxoen garapen integralaren alde egin gura dugu lan". Eta, landu beharreko elementuen artean azpimarratu zituen: osasuna, heziketa, garapen psiko-soziala, kirol hastapena eta euskararen normalkuntza. Horien guztien alde egingo dute Leintz Eskola Kirolekoek.

Lortu beharrekoen helburuen artean azpimarratu zuten: "egitasmoa finkatzea, eta parte-hartzea handitzea", besteak beste.

Saskibaloiaren gainean berbetan

Gura beste saskibaloi izan zen martitzenean Eskoriatzan. Emakumeen Ligako Hondarribia-Irun taldeko entrenatzaile Maria Helena Cardoso brasildarrak berbaldia egin zuen *Liderra, lana, kirola* izenburupean. Arratsaldean entrenatzaileei zuzendutako beste berbaldi bat egin zuen. Amaitzeko, saskibaloi partidua jokatu zuten Eskoriatzako eta Hondarribia-Irungo emakumeek (20-103).

Kirolabur

ARRASATE/SASKIBALOIA

Lehen Mailan dabilen Mugarri Alkesa denboraldiko hirugarren garaipenaren bila joango da Arrigorriagara, Paduraren kontra jokatzera. Gorka Zurututzaren mutilek badakite laugarren postuan dagoen Padura kontrario gogorra izango dela, eta euren kantxan jokatzea ez dela batere erraza. Hala ere, joan den astean Errioxako Kalagorri taldeari irabazi eta gero, taldeak emaitza positiboa ekartzeko esperantza dauka. Bigarren partidua jarraian irabazita Arrasatekoek ez lukete sailkapenean nabarmen gora egingo, baina azkeneko postua atzean uzteko baliagarria izango litzateke. Eta horrek balio handia dauka.

OÑATI/ESKUBALOIA

Arrikrutz Oñatiko Kobak taldeak Pulporen kontra jokatuko du bihar, zapatua (19:00etan, Zubikoan). Joan den jardunaldian bi gol falta izan zitzaizkion irabazteko Oñatiko taldeari, eta oraindik ez dakite etxetik kanpo irabaztea zer den. Horrekin batera, baina, Arrikrutzek oraindik ez du etxean norgehiagokarik galdu, eta hori da garrantzitsua. Oñatikoak eta Zumaiakoak ondo-ondoan daude sailkapenean, zortzigarren eta bederatzigarren postuan hurrenez hurren. Bi taldeek zortzina puntu dituzte.

DEBAGOIENA/FUTBOLA PREFERENTE MAILA

Oraingo asteburuan Aretxabaletak eta Aloña Mendik jokatuko dute etxean. Horrek esan gura du Debagoieneko bi partiduak domekan jokatuko dituztela. UDAk Lesakako Beti Gazteren bisita izango du Ibarran, 16:30ean. Eta Aloña Mendik hamargarren postuan dagoen Mutrikuren kontra jokatuko du. Atzeko postuetatik ihes egiteko gauza direla erakutsi zuten bergararrek joan den astean, eta Anaitasunaren kontra jokatuko dute bihar, zapatua (15:30ean, Azkoitian). Azkenik, Mondrak Pasaiaren kontra neurtuko ditu indarrak bihar baita ere (17:00etan, Errenterian).

OÑATI/JON ODRIOZOLA ORBEAKO ZUZENDARI

Jon Odriozolak ez du ziklismoa utziko, baina bai pedalei eragiteari. Comunidad Valenciana-Kelmeko lasterkariak Kontinental mailan korrituko duen Orbea taldea zuzenduko du. Hau da, oñatiarrak Euskaltel-Euskadiko harrobia zuzenduko du. Hasiera baten, Jon Odriozolak profesional mailan beste urtebete egiteko asmoa zeukan, baina ezin izan dio Orbeatik egin dioten eskaintzari uko egin.

ELGETA/GABONETAKO BOLO TXAPELKETA

Datorren zapatuan, abenduak 4, jokatuko dute Gabonetako Bolo Txapelketako lehenengo jardunaldia, Elgetan. Guztira lau jardunaldi jokatuko dituzte, eta jardunaldi bakoitzean sariak izango dira. Horrez gain, sailkapen orokorreko lehenek ere sariak izango dituzte, eta parte-hartzaile guztien artean saskia zozketatuko dute.

Debagoieneko pilota
Pilotaren gaineko GEHIGARRIA azaroaren 29an Asteleheneko Goienkarian
Pilotarien argazkiak • Erreportajeak • Iritziak
Asteleheneko Goienkaria | **GEHIGARRIAK** | **Gorde egingo dituzu.**

Harpidedun egiteko:
902 36 38 51
Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 21:00etara.
ASTELEHENEKO **Goienkaria**
astelehenean, **aste bukaera osoa**

Soilik Haragi hauetan

Baimenduak: Euskal Okela saltzeko Haragi Baimenduak.

Artisauak: Baimenduak izateaz gain, Euskal Okelarekin eta Eusko Labela daramaten beste produktu batzuekin konpromiso handiagoa duten haragiak.

BAIMENDUTAKO HARATEGIA

ANTZUOLA
GABILONDO ARREGI HARATEGIA
KALEBARREN, 14

ARAMAIO
BIXENTE L. AZPILIKUETA HARATEGIA
BIXENTI GOIKOETXEA PLAZA, 8

ARRASATE-MONDRAGON
LANDALUZE HARATEGIA
ITURRIOZ, 7

JOSE MARI SALEGI HARATEGIA
OLARTE KALEA, 20

AZPILIKUETA HARATEGIA
DOCTOR BAÑEZ, 10

AZPILIKUETA HARATEGIA
ERGUIN, 12

KORTABERRI HARATEGIA
ANTXO ABARKA, 1

BERGARA
ANDRES MUJIKA HARATEGIA
DOMINGO IRALA, 5

BIXAIN HARATEGIA
AZOKA PLAZA PTO. 5-6

ALDAI HARATEGIA
ESPOLON, 12

ESKORIATZA
ZUBIA HARATEGIA
SANTA ANA, 11

OÑATI
ANTXON HARATEGIA
SAN LORENTZO, 5

TARSICIO HARATEGIA
PORTU KALEA, 2

GARAY HARATEGIA
MAIATZAREN LEHENA PLAZA, 2

SUPER BM OÑATI-HARATEGIA
OLAKUA AUZOA, 8

Instituto Opticon, beti preziorik onenak!

'Solución Blanca' Cione flaskoa
9,00 €

'Optifree' flaskoa
12,30 €

'Renu' flaskoa
12,30 €

Sei hilabeteko packa
79 € bakarrik

INSTITUTO OPTICO

ARRASATE:
Erdiko kaleko 22.
Tel.: 943 79 71 68

BERGARA:
Bidekurutzeta 10.
Tel.: 943 76 97 03

Eskatu likidoen txartela: zazpi erosita, zortzigarrena doan!

DEKORAZIOA

Egubakoitza / 2004ko azaroaren 26a / GOIENKARIAren gehigarri berezia

SUKALDEAK
BAINUGELAK
LOGELAK
EGONGELAK

AZALA: MAITENA ARANA

Aro berria, erakusketa berria.



jakina

BAINU GELAK · SUKALDEAK · KERAMIKAK

Amillaga 10 • BERGARA
943 76 03 30

FAGOR

SUKALDEAK

Etxe guztietan diferenteak

IRATI AGIRREAZALDEGI

Sukaldea lantokia izatetik izaera berezidun lekua izatera igaro da. Sukalde txokoan elkartzeko joerara bueltatu gara. Material berri eta iraultzaileek eta diseinu funtzionalek sukaldea toki atsegin bihurtzen dute; bai klasikoak eta bai modernoak.

Sukaldea ipintzeko orduan asko dira aukerak. Tinkotasunaren adierazle diren armairu sendoetatik hasi eta moldakorrak diren elementuetaraino, hainbat altzari aukera daitezke norberaren nahien eta gustuen arabera.

LERRO ETA MATERIAL ASKO

Sukalde industrialen antza hartzen dute gaur egungoek, lerro zuzen eta zorrotzak jarraitzen baitituzte. Hala ere, badira diseinu abangoardistak erabiltzen dituztenak, ate kurbatu originalekin. Beste batzuek, aldiz, nahiago dituzte altzari klasikoak.

Materialak ere, askotarikoak erabiltzen dira: laminatutako akriliko eta geruzadun dirdiratsuak, gaztainondo eta haritz egurra; eta gero eta gehiago dira altzairua erabiltzen dutenak, hura garbitzea errazagoa baita.

GOIENKARIA

Gaur egun, sukalde industrialen antza hartzen dute etxeetako sukaldeek ere.

LERRO ZUZENAK ETA ALTZAIRUA

Lerro zuzenak dira nagusi gaur egungo sukaldeetan. Materialei dagokienez, altzairu herdoilgaitzak gero eta gehiago erabiltzen dira. Altzariak beheko partean ipini ohi dira, batik bat, eta goiko aldean diseinu informalagoa; esaterako, asko ikusten dira bitrinak.

EGURRA KLASIKOENTZAT

Sukalde klasikoetan egurra erabiltzen da, baina ukitu modernoarekin; horretarako, lerro leunekin jokatzen dute diseinugileek. Sukaldea handia bada, erdian mostradoreak ipintzen dituzte lanak erosoago egiteko, baina gutxitan izaten da, sukaldeak gero eta txikiagoak baitira.

POLIMEROA ETA TIRADERA LUZEAK

Material berritzailea izanik, sukalde berrietan polimeroa erabiltzen dute. Altzariak lantzeko aukera zabalagoa ematen du beste material batzuek baino, eta koloreetan ere eskaintza zabala dago. Sukalde modernoetan aipatzeko moduko osagarriak metalezko tiradera (kaxoiak) luzeak dira.

LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

■ BAINUGELAK

Praktikotasuna lehenengo

JON BEREZIBAR

Praktikotasuna da komuna diseinatzeko orduan lehen hitza, eta ziurrenik, garrantzitsuena. Espazio murritza aprobetxatzeko hamaika aukera daude diseinu eta altzairu aldetik. Sukaldeetan bezala, modulutan banatutako bainugela da azken proposamena.

Espazioa, eskuragarritasuna eta garbitzeko erraztasuna. Hiru horiek lirateke bainugela aukeratzerako ideia gakoak. Leku aldetik, bainugela txikia izan arren, hamaika aukera daude espazio murritzari probetxua ateratzeko, diseinuari muzin egin barik.

Modulutan banatutako altzairuek garbiketa errazten dute

PRAKTIKOTASUNAREN BILA

Joera asko daude baina guztiak hitz bakarrean biltzen dira: funtzionaltasuna. Izan ere, orokorrean erosotasunera jotzen da bainugelen apainketan, eta diseinu modernoek ezaugarri hori bere egiten dute. Orain arte horren bogan egon den estilo errustikoa, beraz, gero eta gutxiago erabiltzen da funtzionaltasunaren mesedetan. Joeretan, halaber, aipagarria da ekialdeko ukituen eragina, betiere hasieran aipatutako hiru ideiak errespetatuta. Diseinu modernoek, gainera, pertsonalizaziorako aukera handiagoak ematen dituzte. Mota horretako altzairuak modulutan banatuta datoz, eta, espazioa aurrezteaz gain, garbitzeko errazak dira. Bukatzeko, bainuontziak gero eta gutxiago ikusten dira eta dutxa zabalagoak ipintzen dira horien ordez.

Funtzionaltasuna da bainugela diseinatzeko orduan lehen irizpidea

GOIENKARIA

Garbiketa erraztu eta lekua egiteko eseki egiten dira altzariak

GOIENKARIA

Guztia eskuragarri egotea da ideia nagusi bat.



GOIENKARIA

Estilo errustikoa gero eta gutxiago ikusten da.

OMU
KERAMIKAK
DEBAGOIENA

• Bainu altzari eta osagaiak
• Hidromasaje kabinak
• Manparak

BILTEGIA ETA BULEGOAK:
Meatzerreka 6 • Arrasate
Tel.: 943 79 14 28
Faxa.: 943 79 40 43

ERAKUSKETA:
Ignacio Zuloaga 4 • Arrasate
Tel.: 943 79 07 20

ARGIAK

Gela mota bakoitzak, bere argia

LEIRE KORTABARRIA

Etxeko argiztapenak merezi duen garrantzia berreskuratu du. Dekorazioa antolatzerakoan, aurreikusi beharreko lehenengoetariko gauza da. Bestalde, gela bakoitzak bere argi eta lanpara motak eskatzen ditu.

Argiztapena mota batekoa zein bestekoa izan, diseinu aldetik lanpara xaloak dira nagusi. Forma aldetik, originalak ere gustuko ditu jendeak, baina betiere diseinu konplikaturik gabe. Bai lanpara bai argi mota gelari egokitu behar zaizkio.

GELAZ GELA

Sukaldean bi motatako argiak egoten dira: sutegi eta harraska aldean fluoreszenteak, paretan, ez sabaian; mahai aldean, sabaiko lanparak aukeratzen dira.

Egongelarako eta logelarako, paretako lanparak edo ezarkinak dira onenak; egongelan, baita zutikako lanparak ere. Beste aukera bat da foku halogeno batzuk dituen errail bat ipintzea, beste argi mota batzuekin konbinatuta, nahi bada.

Logelan, argiztapen aldetik bi gune bereiztea komeni da: bata, logela eta ohearen aldekoa, eta bestea, idazmahai aldekoa, mahaiko argi foku batekin.

Azkenik, pasilloan, lerro-formako lanparek ezarkin bakunek baino hobeto argitzen dute.

GOIENKARIA

Ezarkin bakunak egokiak dira logeletarako.

GOIENKARIA

Mahai batek bere argiztapen propioa behar du.

GOIENKARIA

Diseinu aldetik, linea xaloak dira nagusi.

GOIENKARIA

Zutikako lanparek sabaikoak alboratu dituzte.

SUKALDEAK: Udala Plaza z/g, Arrasate / 943 79 00 43
BAINUAK: Zarugalde 52, Arrasate / 943 79 99 42
ETA ORAIN OÑATIN: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

iKER

%20 DESKONTUA
SUKALDE ALTZARIETAN

FAGOR

ALMACENES ARRASATE

FAGOR eta ASPES etxetresna elektrikoetan sekulako eskaintzak!
Orain erosi, eta ordaindu sei hilabetean interes barik.

BERMEA 2 URTE

1.460 X 550 X 590 mm

HOZKAILUA 1FA255
265 € 44.092 pta aspes

BERMEA 2 URTE

1.850 X 598 X 590 mm

HOZKAILUA COMBI 1FAC495
359 € 59.733 pta aspes

BERMEA 2 URTE

800 b/min
5 kgr.

GARBIGAILUA LA383
295 € 49.084 pta aspes

BERMEA 2 URTE

1.000 b/min
6 kgr.

GARBIGAILUA LA4163
345 € 57.403 pta aspes

BERMEA 2 URTE

450 b/min
6 kgr.

GARBIGAILUA LA143
208 € 34.608 pta aspes

BERMEA 2 URTE

LABEA
H21410 BN
BITROZERAMIKA
VAP1400

LABEA eta BITROZERAMIKA
345 € 57.403 pta aspes

TELEBISTA LAVIS
LA-1472 14"
119 € 19.800 pta.

TELEBISTA SONY
SONY 29" WEGA
399 € 66.388 pta.

TELEBISTA PANASONIC
TX-20LA2 LCD 20"
869 € 144.589 pta.

TELEBISTA Plasma PHILIPS
42PF9946 42"
2700 € 449.242 pta.

Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.
Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.
Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.

Kataide poligonoa 3 • Arrasate Tel.: 943 77 13 52 / 943 77 00 34 | Ordutegia: 09:00-13:00 / 15:00-20:00 ZAPATU GOIZETAN ZABALIK

Aurkezten den modeloa: Artic besaulkia eta Paloma Cherry pufa – 1.959

Bleu Atlantique

Sentsazio askatasuna proba ezazu

Stressless® EKORNES®

Besaulkiak eta sofak

Diplomat larruzkoa
953 eurotik aurrera

Windsor larruzkoa 2 plaza
2.705 eurotik aurrera

Plus Sistema™ esklusiboarekin eta Stressless® -en teknologia aurreratuarekin, besaulkiak eta sofak zure gorputza libre sentiaraziko duten munduko leku bakarrak dira, edozein jarreratan egonda ere. Kolore eta forma gama guztiak aukeran, zure saloiko estilora egokitzen dira, amets egiteko edo zure pentsamenduak aske uzteko gogoko duzun toki bihurtuz.

www.ekornes.es

Noche y Dia
Morfeoren besoetan

Atseden Etxea
Adriano VI, 17 • **GASTEIZ**
Tel./Faxa: 945 21 42 24

■ LOGELAK

Lerro zuzenak nagusi

MARIA AGIRRE

Etxeko tokirik garrantzitsuenetarikoa da logela. Etxeko gainontzeko geletan bezala, aprobetxamendu ona bilatu eta altzari gutxi jartzen dira logelatan. Hormak, berriz, kolore biziz margotzeko joera nagusitzen ari da apurka-apurka.

Logeletan ere, estilo modernoaren eta klasikoaren artean dago joera. Batzuek nahiago dute estilo modernoan nagusi diren lerro zuzenen aldeko apustua egin, eta beste batzuek, berriz, estilo klasikoen alde egiten dute. Horiek altzari landuagoak nahi izaten dituzte, baina ez garai batekoek izaten zituzten horrenbeste detailerekin. Eskualdean, gehiago dira estilo klasikoaren alde egiten dutenak.

Edozein modutan ere, ispiluak armairuan jartzen dira gehienbat, eta ohean buruko handi baina leunak ipintzen dituzte.

Ohean buruko handiak ipintzen dituzte. Burukoak larruarekin apain daitezke

Gainera, batzuetan, burukoak larruarekin apain daitezke. Argiei dagokienez, gaur egun gero eta gehiagok egiten dute halogenoen aldeko apustua. Eta hormak, berriz, kolorez margotzen dira, baina gehienetan kolore leunak izaten dira, nahiz eta gaur egun kolore biziagoak dauden modan. Materialei dagokienez, berriz, haritza nagusi da, baina beste material berriago batzuk ere nabarmenduz doaz, esate baterako, kolore iluna dutenak. Hala ere, horiek badute euren koska, pilatutako hautsa samurrago igartzen baita.

Batzuek altzari landuagoak nahi izaten dituzte, baina ez detaile askorekin

ARMAIRUEK, TXOKO UGARI

Gaur egun geletako armairuek garrantzi handia dute, eta barruan askotariko arropak uzteko txokoak izaten dira. Prakak alde batetik, berokiak bestetik... arropa bakoitzak bere tokia du. Zapatak uzteko armairu bereziak ere badira, alboan gorbatak uzteko lekua dutenak. Gainera, horien kasuan, telebista aparailua ere jar daiteke gainean.

Gaztetxoendako gelak alaiagoak izaten dira, ikasteko toki bereziarekin

GAZTETXOEN GELAK

Gaztetxoendako gelak alaiagoak izaten dira, ikasteko eta ordenagailua jartzeko tokiekin. Gaur egun, gainera, bi ohe bata bestearen gainean jartzen direnean, kutxa bidez egindako eskailerak jartzen dira.

Tokia ondo aprobetxatu, baina altzari asko ez jartzea da joera hemen ere.

GOIENKARIA

Bailaran arrakasta handia dute estilo klasikodun gelek.

GOIENKARIA

Armairuetan arropa bakoitzak bere tokia du.

GOIENKARIA

Estilo modernodun geletan lerro zuzenak nabarmentzen dira.

Xarmaz beteriko loradenda

BELEN MAIZTEGI
LORAK
• Teleordainketa
• Enkarguak hartzen dira
Biteri etorbidea 13 • Arrasate • Tel.: 943 08 15 44

ARREGI
arte galeria
enmarkazio tailerra
Maalako Errebala, 8
20500 Arrasate
Telf. 943 79 56 44
arregi.arte@lycos.com
Bingen de Pedro 2004ko urriaren 15etik azaroaren 30era

■ EGONGELAK

Altzari gutxi eta kolore asko

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Egongela erdi hutsak. Ahalik eta altzari gutxien erabiltzeko ohitura nagusitzen ari da. Hala ere, egongela txikiek ez dute horretarako tokirik uzten, toki faltagatik, hain zuzen ere. Gela bereAn hainbat kulturak bat egitea geroz eta ohikoagoa da.

Etxeko egongela dekoratzeko orduan kontuan hartu beharreko hainbat ezaugarri daude. Izan ere, ez da berdin gela handi bat edo txiki bat apaintzea; altzari asko edo gutxi gura diren…

Gaur egungo joera nagusia diseinu modernoko altzariak erabiltzea da. Hala ere, ez da desagertu diseinu klasikoak erabiltzeko ohitura. Gaur egunera egokitzen dituzte aspaldiko diseinuak, lerro zuzenagoak erabiliz, esaterako.

Diseinu modernoaren barruan, ahalik eta altzari gutxien erabiltzeko joera nabarmendu behar da. Jende askok gura du etxea horrela apaindu. Baina ez da erraza izaten; izan ere, ohikoena da egongela txikia izatea, eta nahiz eta gauza askorik sartu ez, beteta geratzen da tokia.

Ez da ahaztu behar, baina, bi estilo horietatik irten eta nahasketa bidez euren egongela apaintzen duten pertsona asko daudela. Denbora luzea igarotzen da etxeko txoko horretan, eta norbera eroso sentiarazten duen apainketa modua bilatu behar da.

GOIENKARIA

Ahalik eta altzari gutxien erabiltzea da dekorazioan gaur egungo joera; askotan ezin izaten da horrela egin.

Diseinu modernoak indar handia du; ez da, baina, klasikoa egongeletatik desagertu

ASKOTARIKO APAINGARRI ESTILOAK

Altzari gutxi erabiltzeko joerarekin batera, hormak pinturekin apaintzea oso ohikoa izan da beti. Europan, esaterako, gaur egun oso ohikoa da 60ko hamarkadan egiten ziren *pop-art* lanen antzerakoak egongelatan ezartzea. Hala ere, gure ibarrean ez du harrera handirik izan joera horrek; normalagoa da arte abstraktuarekin lotutako artelanak aurkitzea.

Bestalde, ekialdeko kulturaren eragin handia suma daiteke gaur egun. Horren adibide, bai pintura eta baita zeramika objektuek ere, esaterako, hainbat egongelari indarra ematen dietela. Hainbat kultura toki bereAn fusionatze horrek modernismoa adierazten duela diote dekorazioaz dakitenek.

'Pop-art'-a eta ekialdeko objektuak gaur egungo dekorazioarekin nahasten dira

SOFAK ETA DEKORAZIOA, BAT

Atseden hartzeko sofa egokia aurkitu behar da; sofa hori dekoraziora egokitzea ezinbestekoa da. Askotariko koloreetako sofak aurki daitezke gaur egun merkatuan: laranjak, berdeak, gorriak, lilak… Bestalde, larruzko sofak egongeletara laster itzuliko direla dirudi; hala diote dekorazioan aditu direnek.

GEROZ ETA JANGELA GUTXIAGO

Lasai egoteko tokiaz gain, egongelak jangela funtzioa bete izan du etxe askotan. Hala ere, geroz eta pertsona gutxiagok erabiltzen dute horretarako. Baina jateko tokia egokitzen duten askok karratu formako mahaiak dituzte aukeran; baita borobilak eta desmunta daitezkeenak ere, egongela bakoitzaren tokiaren arabera.

ALTZARIAK • DISEINUA • APAINKETA

Mobiliario ARENAZA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

DEKORAZIOA
Egubakoitza / 2004ko azaroaren 26a

Erosten jakin:

ZURE FAMILIARENTZAT ONENA AUKERATU

Grupo Eroski

EROSKi

Erosten jakin

DANBAKA

DEBAGOIENEKO I. MUSIKA LEHIAKETA

SARRERAK

Kontzertuetara joan nahi baduzu,

gaztekutxa

bidez gauzak erraztuko zaizkizu.

Gaztekutxako txartela daukatenek hiru euro balio duen sarrera euro bakarrean eskuratu ahal izango dute (kontzertu bakoitzeko lehenengo bi sarrerak). Horretarako, sartu **www.gaztekutxa.net** helbidean edo www.goiena.net-en, eta eskuratu sarrerak merke.

Gaztekutxa txartelik ez daukazula? Ba zure herriko Kutxako edozein bulegotara gerturatu, eskatu zure Gaztekutxa txartela (ez duzu ezer ordaindu beharko) eta gainera hurrengo kontzerturako bi sarrera oparituko dizkizu Kutxak.

Gaztekutxa bitartez
- Kontzertu bakoitzeko **euro 1**
- 6 kontzertuetarako abonua **6 euro**

Prezioak Espaloian
- Kontzertu bakoitzeko 3 euro
- 6 kontzertuetarako abonua 15 euro

KONTZERTUA

Elgetako Espaloia Kafe Antzokian
Abenduaren 3an (barikua)
22:30

Cretinos
(Arrasate)

N_OPH
(Arrasate)

Ostiada OI!
(Elgeta-Bergara)

Supercools
(Bergara)

SMS MEZUAK

Gustukoen duzun talde, bakarlari edo abestiari lagunduz, zuk ere saria irabazi!

Aldeko SMS gehien jasotzen dituen partaideak Danbaka lehiaketako Entzulearen Saria irabaziko du, eta mezu-bidaltzaile guztien artean honako opari hauek banatuko ditugu:
- 2 lagunendako afari bat Espaloian.
- 10 erosketa-txartel Ganeshan (30 eurokoa bakoitza).
- 6 matrikula Irudi Sport gimnasioan.
- 6 ile mozketa + Manikura Spa + Pedikura Spa, Zirt-Zart ileapaindegian.
- **www.istilu.com**-ek emanda:
  - 10 "Euskal zapi"
  - Mutilendako 3 txapel
  - Neskendako 3 tanga.
  - 3 galtzontzilo
  - Neskendako 10 kamiseta.
  - Mutilendako 10 kamiseta.
  - 3 galtzerdi pare

Zenbat eta mezu gehiago, irabazteko aukera handiagoa!

Mezuak bidaltzeko jarri:
DANBAKA (tartea) PARTAIDEAREN IZENA eta bidali 7744 zenbakira.

Mezu bakoitzaren kostua 0,9+BEZa.

Taldeen izenak:

-Amonal
-Denial
-Dixie 900
-Enboskada
-Isarevolution
-Izaskun Ojanguren
-Jim TNT
-Los Cretinos
-Malenkonia
-Matxura
-Muted
-N_Oph
-Neure Baitan
-Ostiada Oi!
-Ozen
-Potemkin
-Sharon Stoner
-Stukas
-Supercools
-Turboamor

gaztekutxa
Goienkaria
Kafe Antzokia espaloia Elgeta
Arrasate Irratia
Mondragon Unibertsitatea
Elgetako Udala
Goiena.net Debagoieneko ataria Interneten
Goitb Goiena Telebista
jakina Sukaldeak • Bainu gelak Keramikak
Goieskola
Goienkaria
Zirt-Zart
Carrión música
Memesa Industria hornidurak
Ganesha Tattoo Grow Shop Piercing
Irudi Sport

Goienka 2a

Egubakoitza / 2004ko azaroaren 26a

Kultura eta aisialdia

Azaroaren 26tik abenduaren 3ra

Bilbokoa da Kepa Junkera. Bilbokoa da eta Athleticekoa da. Berak esaten du hori eta berari ikusten zaio hori. Azken bi lanetan bai, behintzat. *K* ikuskizuna Bilboko Arriaga antzokian aurkeztu zuen eta aste honetan bertan, *Athletic Bihotzez* multimedia proiektua aurkeztu du jokalariekin batera.

Txikitatik entzun du musika Kepa Junkerak etxeko sukaldean. Amak, gainera, dantza egiten zuen eta folklore tradizionala ez zaio arrotza. Berari ere gustatu egin zitzaion, baina gehiago ikasi nahi zuen eta bere kasa ikasten hasi zen. Hango eta hemengo musikak, bazter guztietako doinuak entzun gura izaten ditu eta bata besteekin nahasten iaioa dela erakutsi du bere lanetan. Hala ere, berak ez duela ezer erakutsi nahi dio, gustatzen zaiona egiten duela soilik.

Nazioartean ibili ostean egin zuen *K* lana eta bere aurkezpenerako jende eta artista asko gonbidatu zituen. Asko atsegin du hori Kepak: jendea. Saiatzen da dituen proiektu guztietan askotariko jendez inguratuta egoten. Arriaga antzokiko aurkezpenean ere lagun bikainak izan zituen ondoan taula gainean. Eta Eskoriatzara ere ez da bakarrik etorriko.

ESKORIATZAKO KIROLDEGIAN, GAUR, 22:30EAN

Oreka TX taldeko kideak aspaldiko lagunak ditu, eta gaur, egubakoitza, ere ondoan izango ditu Eskoriatzako kiroldegian. Ibon Koteronen ordez, Juan Garmendia izango du alboka jotzen eta perkusioa, berriz, Iñaki Plazak joko du. Lagunak ditu guztiak eta denak datoz ikuskizunaz, kontzertuaz, gozatzera. *K* lana zuzeneko indartsua dela dio berak eta taula gainean dauden artista eta instrumentu bakoitzak garrantzi berezia dutela.

Gorenetik Eskoriatzako kiroldegira etorriko da egubakoitz gauean Kepa Junkera, eta gustura dator gainera, inoiz ez da Eskoriatzan egon-eta. Kiroldegian izango da ikuskizun kontzertua, 22:30ean, eta sarrerak 10 euro balio du leihatilan. **/14** OIHANA ELORTZA

JUNKERA GORENERA

AZALA: IÑAKI ITURBE / JATORRIZKO IRUDIA: KAP PRODUKZIOAK

MUSIKA/ AZKEN DISKOA AURKEZTUKO DU KEPA JUNKERAK GAUR ESKORIATZAN

KEPA JUNKERA, MUSIKARIA

"Flipatu' egingo luke nire aitajaunak eskusoinua horrela jotzen ikusiko banindu"

OIHANA ELORTZA

Eskoriatzan inoiz ez dela egon eta gogo handiz datorrela aitortu digu Kepa Junkerak. Eta ez dator bakarrik; aspaldiko lagunekin batera dator, Oreka TX-eko lagunak tartean, eta ikuskizun ona eskaintzeko asmoa dute. *K* lana aurkeztuko dute gaur, egubakoitza, 22:30ean, Kiroldegian. 10 euro balio du sarrerak.

Dena gertu?

Bai, bai,prest daukagu dena. Oso urte gogorra izan dugu baina taldea oso ondo dago. *K* kontzertu-ikuskizunak ere oso harrera ona izan du eta pozik gaude guztiok. Oso ondo pasatzen dugu eszenategi gainean eta horixe da garrantzitsuena, musikarekin transmisioa lortzea. Gu oso pozik gaude eta horixe transmititu nahi diegu gaur, egubakoitza, gauean Eskoriatzara datozenei.

Taula gainekook lagunak izango zarete honez gero eta horrek erraztuko du helburua betetzen, ezta?

Erlazio profesionala egon behar da, noski, eta baita errespetu handia ere, profesionalki zein pertsonalki, ordu asko pasatzen ditugu elkarrekin-eta.

Zein lagun izango dituzu ondoan?

Oreka TX taldekoak txalaparta jotzen, Jon Garmendia albokarekin, Iñaki Plaza perkusioa jotzen eta aspalditik nirekin batera taldea osatzen dutenak.

Zuzeneko ikuskizuna da *K*, oso indartsua, eta bakoitzaren lana eta soinua oso garrantzitsua da lan honetan.

Nazioarteko hainbat bidaien ostean egin duzu 'K'.

Bai, baina aurretik egindako lanagatik ere atera dut lan honetarako materiala.

Bilbon grabatu gura nuen zuzeneko diskoa, beste musikari eta talde batzuekin batera. Zerbait ezberdina egin nahi nuen baina, aldi berean, orain arteko lanarengandik asko urruntzen ez dena, erlazioa duena.



KAP PRODUKZIOAK

Kepa Junkera musikari bilbotarra.

"Zuzeneko ikuskizuna da 'K' kontzertua, eta bakoitzaren lanak indar handia du"

"Asko gustatzen zait musika eta oraindik ere lehen egunean nuen ilusio bera daukat"

Zer iruditu litzaioke zure aitajaunari?

Flipatu egingo luke jotzen ikusiko banindu. Amak dantzatu egiten zuen Txilibrin albokariarekin batera, eta beti entzun dut musika etxean. Gustatu egin zitzaidan eta ikasten hasi nintzen. Aurrerago, ordea, autodidakta bihurtu nintzen. Oraindik ere lehenengo egunean nuen ilusio bera daukat.

Musikan dena nahas daitekeela erakutsi duzu.

Gustatzen zaidana egiten dut, ez nago ezer inori erakusteko, Niri beste lurralde eta kulturetako musika gustatzen zait. Joan zaitezke beste lurralde batera eta hotelak antolatzen dituen bidaietan ibil zaitezke, edo joan zaitezke beste lurralde batera eta hango biztanleekin bazkaldu eta musika ezagutzen ibil zaitezke. Nik bigarrena aukeratzen dut.

Eskusoinua doinu guztietara moldatzen da?

Pertsona da moldatu behar dena. Nik musikan sinisten dut instrumentuen gainetik eta norberak izan behar du soinu ezberdinak elkartzeko eta bateratzeko gogoa eta interesa.

Egubakoitzean Eskoriatzan eta zapatuan Gironara zoazte.

Bai. Oso ondo tratatu gaituzte beti Katalunian eta gustura goaz oraingoan ere. Eskoriatzan, aldiz, ez naiz inoiz egon baina gogotsu goaz taldekide guztiok.

Aizu, zorionak Grammy Latindarragatik!

Eskerrik asko. Duela egun batzuk iritsi zait etxera.

Sorpresa atsegina izan zen. Euskal musika AEBetan ere entzun daitekeela erakutsi digu sari honek eta pozgarria izan da hori. Euskal kulturarendako, oro har, garrantzitsua izan dela uste dut, atzerrian ezagutarazteko modu bat ere bada-eta.

Nafarroa Oinezko kanta aurkeztu zenuen egun berean jakin zenuen Grammya emango zizutela.

Bai, kasualitatea izan zen eta pozik hartu nuen notizia.

Athletic bihotzekoa

Behin ez, birritan aurkeztu zuen Kepa Junkerak *Athletic Bihotzez* proiektu berria martitzenean: komunikabideen aurrean lehendabizi eta Athletic Fundazioaren aurrean gero. Proiektu osoa da; izan ere, musika CDaz gain, liburua eta DVDa ere baditu.

Aurkezpenen ostean festa egin zuten Bilbon. Ondo pasa zuten, eta barre egin zuten. Eta barrez erantzun dio futbolariek duten erritmoari buruzko galderari. Lanaren grabazioan denetarik gertatu dela aitortu du, baina ondo moldatu direla bai alde bateko zein besteko futbolariak. Batez ere, abesteko eta musikari kasu egiten moldatu direla ondo, bestelakoan lehendik ere lagunak direlako. Eta futbolaren jarraitzaileak ere futbolaren lagunak izatea gura du Kepak. Futbola balioen azpira jaitsi gura du Kepa Junkera Athletic-zaleak lan honekin. Galdu behar ez liratekeen balioak azpimarratu nahi ditu eta futbola bera kirol bezala ikusi behar dela esan gura du.

Aste honetan aurkeztu du *Athletic Bihotzez* lana, eta, joan den domekako partidua ikusita, aurreko astean aurkeztuta ere lan honek derbiaren emaitza ez lukeela aldatuko uste du, barrez. Eta Realaren garaipenak ere ospatzen dituela dio, baita Athleticen aurkakoak ere.

DEBARRI

Andoni Gartzia Oñatiko alkatearekin berbetan

Martitzenean, azaroaren 30ean 21:00etan
Alkateari galderak egiteko: 943 71 23 93 edo www.goiena.net

Goitb Goiena Telebista

Ikustekoa!

GOIENAN HERRIZ HERRI / Babeslea:
GRUPO ARKAUZ
ARRASATE-ARETXABALETA

MUSIKA/ DEBAGOIENEKO I. MUSIKA LEHIAKETA

Emanaldirik onena, azkena

JOAN ZEN EGUBAKOITZEKOA IZAN DA JENDETZA HANDIEN BATU DUEN EMANALDIA, ETA BAITA ONENA ERE



IZAS / ELGETA

Emanaldi bikaina eskaini zuen Izas bakarlariak. Gaueko ahots onena berea izan zen. Erakutsi zuen gitarra eta ahots hori nahikoa dituela jendearen txaloak jasotzeko. Gogo handiz eta intentzio onenekin igo zen agertokira. Jendeari asko gustatu zitzaion emanaldia.



ISAREVOLUTION / ARRASATE-ESKORIATZA

Oso eszenaratze ikusgarria erakutsi zuten, argi-efektu deigarriekin. Bestalde, taldekideak ondo mugitzen dira agertokian, eta oso estilo pertsonala dute, zorroztasuna eta melodia batuta. Abeslariari igarri zitzaion bere buruarengan konfiantza handia duela, eta ahots aldetik, hobera egin zuen saioak aurrera egin ahala.

MALENKONIA / OÑATI

Ia esperientzia bako taldea da, eta igarri egin zitzaien hori; Besteak beste, ahotsa hobetu beharko lukete, baina gauza asko dituzte alde: estilo propioa dute, emozioak ukitzen eta sortzen dakiten abestiak; pop doinu politak egiten dituzte eta konposizio aldetik interesgarriak dira.

MUTED / ARRASATE-ABADIÑO

Post-metala, technoa, hip-hopa... Ez da erraza horiek ondo uztartzea, baina Muted-ek lortzen du. Ezohiko taldea da, ezohiko kemenarekin jardun zuten eta zuzeneko borobila egin zuten. Orain arteko talde onenetariko bat da, batez ere arlo instrumentalean. Finalean postua merezi dute.

Publikoaren Saria

Jendeak aukeratuko du Ikuslearen saria. Hemen, orain arteko sailkapena.
Bidali mezuak:
danbaka [laga tartea] taldearen izena eta bidali 7744 zenbakira.
SMSaren kostua 0,90 euro+BEZ

1	ENBOSKADA	ARRASATE — Botoen %20
2	DENIAL	ARRASATE-ARETXABALETA — Botoen %16,5
3	STUKAS	BERGARA — Botoen %9,6
4	OZEN	ARRASATE — Botoen %9,4
5	POTEMKIN	OÑATI — Botoen %6
6	MALENKONIA	OÑATI — Botoen %5,7
7	JIM TNT	ARRASATE — Botoen %5,2
8	AMONAL	OÑATI — Botoen %4,6
9	IZAS	ELGETA — Botoen %3,3
10	DIXIE 900	BERGARA — Botoen %3,2
11	SHARON STONER	OÑATI — Botoen %3,2
12	MATXURA	ELGETA-SORALUZE — Botoen %2,8
13	ISAREVOLUTION	ARRASATE-ESKORIATZA — Botoen %2,4
14	N_OPH	ARRASATE — Botoen %2
15	SUPERCOOLS	BERGARA — Botoen %1,7
16	LOS CRETINOS	ARRASATE — Botoen %1,2
17	NEURE BAITAN	ARRASATE — Botoen %0,7
18	OSTIADA OI!	ELGETA-ARRASATE-BERGARA — Botoen %0,6
19	TURBOAMOR	ARRASATE — Botoen %0,6
20	MUTED	ARRASATE — Botoen %0,4

DANBAKA
DEBAGOIENEKO I.MUSIKA LEHIAKETA

ASTELEHENEKO GOIENKARIan!

Danbaka-ko kontzertuen gaineko **informazio guztia** ASTELEHENEKO GOIENKARIAn:
kronikak, kritikak, iritziak, inkestak, taldeen inpresioak, argazkiak... Eta baita Publikoaren sariaren gaineko sailkapen eguneratua.
Hori guztia eta gehiago... ASTELEHENEKO GOIENKARIAn.

Erosi ASTELEHENEKO GOIENKARIA edo egin zaitez harpidedun!

gaztekutxa · Goienkaria · espalola · Elgetako Udala · Arrasate Irratia · Goitb · Goiena.net · Goienkaria · Memesa · Ganesha Tattoo Piercing · jakina · Carrión Música · Mondragon Unibertsitatea · Goieskola · Irudi Sport

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2004ko azaroaren 26a

Aza. 26-Abe. 3

Leire Kortabarria / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com** • Tel.: **943 76 03 97** • Faxa: **943 76 29 77**

ERAKUSKETAK

ARRASATE

► **Maritxu Kajoi gauean** Gure Leku tabernan ateratako argazkiekin murala ipini dute. Hortaz, gau horretan Gure Lekun egon zirenek euren burua iruditan ikusteko aukera dute. Otalora kaleko taberna horretan dago murala, egunero, zapatuan izan ezik. Abendu erdialdera arte izango duzue argazkiok ikusteko modua.

► ***Bizkaiko Golkoko izurde eta baleak*** delako argazki erakusketa izango da Monterronen hilaren 30era bitartean, astegunetan, 18:00-20:00. Itsas ikerketa arloko Anbar Elkarteak antolatzen du.

► **Arrasate Margo Taldeak** erakusketa du Harresi aretoan hilaren 28ra bitartean, honako ordutegian: astegunetan, 18:00-20:00; eta zapatu eta jai egunetan, horrez gain, 12:00-14:00 ere.

MUSIKA

ANTZUOLA

► **Abesbatzaren emanaldia** izango da etzi, domeka, elizpean, meza ondoren, Santa Zezilia eguna izan dela eta. Luntxa ere izango da.

BERGARA

► **Lobo Electrico, A Pico y Pala eta Fuck Furcias** taldeek emanaldia egingo dute bihar, zapatua, gaztetxean, 22:30ean.

► **Atrocity, Leaves' Eyes, Darkwell eta Battlelore** taldeek kontzertua eskainiko dute bihar, zapatua, Jam aretoan, 20:00etan. Sarrera 20 euro da.

► **Acid Maria** disko jartzaile alemanak emanaldia egingo du bihar, zapatua, Go-Jam aretoan, 01:00etan. Alain eta Kaiet DJek ere jardungo dute. Sarrera eta edari bat 10 euro da.

ESKORIATZA

► **Jim TNT** bakarlariak kontzertua eskainiko du gaur, egubakoitza, Inkernu tabernan, 22:30ean.

DEIAK

ANTZUOLA

► ***Emakumeen kontrako indarkeria: hausnarketa eta proposamenak*** hitzaldia egingo du Nekane San Miguel epaileak martitzenean, hilak 30, Olaranen, 19:00etan. Zutik taldeak antolatu du.

ARETXABALETA

► **Toti Martinez de Lezea** idazleak Euskal Herriko historiaren gaineko hitzaldia egingo du martitzenean, azaroak 30, Kurtzebarri eskolan, 18:30ean.

► **AHTren, eskualdeko hiltegiaren** eta beste hainbat gairen inguruko hitzaldia egingo du EHNE sindikatuak eguenean, abenduak 2, udaletxe zaharrean, 19:00etan.

ARRASATE

► **Bertso afaria** izango da gaur, egubakoitza, AEDren txokoan, 21:30ean, Fredi eta Xabier Paia bertsolariekin.

► **Baserriko produktuen azoka** egingo dute bihar, zapatua, Seber Altube plazan. Udal Enplegu eta Garapen Sailak antolatu du, Ibai Arte merkatarien elkartearen laguntzarekin.

► ***Mugarriz mugarri Arrasate ezagutzen*** egitasmoaren barne, Udalara irteera antolatu dute etzirako, domeka. Arbolapetan bilduko dira 09:00etan.

► **2004 urtean masterra grabatu duten** herriko taldeendako dirulaguntza deialdia egin du Udal Gazteria Sailak. Gehienez ere, 780 euroko laguntza emango dute grabatutako master bakoitzeko. Eskaerak udaletxean egin behar dituzte interesa dutenek.

BERGARA

► **Iñaki Anasagastik** batzokiaren mendeurrenaren gaineko hitzaldia egingo du gaur, egubakoitza, Miguel Altuna institutuan, 19:30ean.

► **Bigarren eskuko mendi material azoka** zabalik dago Pol-Pol mendi taldearen aretoan, Komenio kalean, astegunetan 19:00-20:30 eta zapatuan, hilak 27, 18:00-20:00.

DEBAGOIENA

► **Itoizko Koordinakundeak** kale agerraldia deitu du biharko, zapatua, Iruñeko autobus geltokian hasita, 18:00etan, Segurtasunagatik leloarekin. Eskualdeko lantaldeak parte hartzeko dei egiten diete debagoiendar guztioi.

► **Hartutako burmuineko kalteen inguruko** Atece elkarteak dei egiten die debagoiendarrei elkarteari lagun diezaioten. Horretarako, 12 euroko urteko kuota ordaindu behar da. Argibideetarako, deitu 943 79 28 07 telefono zenbakira.

ESKORIATZA

► **Ibarraundi museoan ate ireki jardunaldia** izango da etzi, domeka. Herritarrek Ibarraundi proiektua hartuko duen egoitza barrutik ikusi ahal izango dute 11:00-14:30 eta 16:00-20:00 ordutegiaren barne.

OÑATI

► **Eskalada ikastaroa** egingo dute bihar, zapatua, kiroldegian, 10:00etan. Arratsaldean ere izango da. Parte hartzeko, eman izena gaur, egubakoitza, Aloña Mendi tabernan, edo bihar, zapatua, kiroldegian.

► ***Nola piztu ikasteko gogoa gure seme-alabei*** delako hitzaldia egingo du Mikel Erramouspe Kanboko San Mixel kolegioko zuzendari eta gaian adituak martitzenean, hilak 30, Txantxiku ikastolan, 18:30ean.

► **Kanta afaria** antolatu du Laixan elkarteak abenduaren 10erako, eta izenematea zabalik dago abenduaren 3ra arte, egubakoitza, 943 71 63 11 telefonoan eta *laixan@topagunea.com* helbidean.

OSPAKIZUNAK

ANTZUOLA

► **Elkartasun festa** antolatu du Anelkar elkarteak biharko, zapatua, Zurrategi plazan, 19:00etan. Dantza emanaldiak, argazki erakusketa, jolasak, luntxa eta bidezko merkataritzako salmenta izango dira.

ARETXABALETA

► **Udazkenari agur!** jaia antolatu du Kurtzebarri eskolak hilaren 2rako, eguena, Iturrigorri frontoian, 18:30ean. Txalaparta, alboka, txistu eta dantza emanaldiak, lekarixo lehiaketa, Larrin dantza emanaldia, buzkantza, gaztaina, intxaur eta sagardo jana eta Hemendik At taldearen koreografia izango dira.

ANTZERKIA

ANTZUOLA

► ***Inaxitoren ametsak*** umeendako antzerki eta bertso emanaldia bihar, zapatua, Olaran etxean, 18:00etan.

ARRASATE

► ***La muerte y Nat*** komedia antzezlana izango da gaur, egubakoitza, Iamai tabernan, 00:00etan.

BERGARA

► ***Arrakalak*** olerki, irudi eta soinu ikuskizuna izango da gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:30ean. Gotzon Barandiaranek aurkeztu berri duen olerki liburuetako testuetan oinarritzen da, eta Bihotz Bakartien Klubeko taldekideak dira antzezleak.

► KONTZERTUAK

DEBAGOIENEKO MUSIKA ESKOLEK EMANALDIA EGINGO DUTE GAUR

Ibarreko musika eskolek hainbat emanaldi egingo dituzte datozen egunotan. Ekitaldi nagusi bezala, Debagoieneko musika eskolek eta Plazentziakoak kontzertua eskainiko dute Oñatiko Santa Ana antzokian. Arrasate, Bergara, Aretxabaleta, Eskoriatza, Oñati eta Plazentziako eskolek parte hartuko dute. Kontzertu bateratua antolatzen duten bigarren urtea dugu. Egun eta ordu berean, Arrasate Musikaleko ikasleek kontzertua eskainiko dute gaur, egubakoitza, euren egoitzan, 18:30ean. Azkenik, Arrasate Musikaleko bandak kalejira egingo du bihar, zapatua, Aretxabaletan, 18:00etan, Alberto Etxeberria zenaren omenezko eguna deitu duelako bihar Murrukixo mendi taldeak.

Non: kontzertuak, Oñatin eta Arrasaten. **Noiz:** gaur, egubakoitza, azaroak 26. **Ordua:** 18:30ean. **Sarrera:** doan.

MEMESA SL
Industri hornidurak
943 71 24 25

ELGETA

► ***Mambru*** umeei zuzendutako antzezlana egingo du Markeliñe taldeak etzi, domeka, Espaloia kafe antzokian, 17:00etan. Udalak antolatu du.

ESKORIATZA

► ***Patata, patata!*** lan berria aurkeztuko dute Pirritx eta Porrotx pailazoek bihar, zapatua, kiroldegian, 17:00etan. Protagonista da Saharatik etorritako *Tiber* neskatxa. 15 bat kanta berri abestuko dituzte pailazoek eta euren lagunek, horietako batzuk euskaraz eta bereberren hizkuntzaz. Sarrera 4 euro da.

IKUSKIZUNAK

ARETXABALETA

► **Mendi Astearen** barne, *Jainkosen altzoan* Ion Belokiren ikus-entzunezkoa izango da gaur, astelehena, Kurtzebarri eskolan, 19:00etan.

BERGARA

► ***7 pareta, 7 kontinente. Yosemite eta Madagaskar*** ikus-entzunezkoa emango dute Pou anaiek gaur, egubakoitza, Novedades aretoan, 20:00etan. Sarrera doan da.

LEHIAKETAK

BERGARA

► **Erakusleiho lehiaketa** deitu dute. Abenduaren 10etik 27ra bitartean (biak barne) egon beharko dute prestatuta erakusleihoek. Saltzen diren ohiko artikuluak agertu beharko dira, eta kontuan hartuko da mezuaren irudimena, originaltasuna, eraginkortasuna eta erakusleihoaren kalitatea. 250 euro eta garaikurra irabaziko dute hiru onenek. Argibideak, 943 77 91 58, 943 77 91 59 (kultura etxea) edo 943 76 04 68 (Bedelkar) telefono zenbakietan.

ESKORIATZA

► **Gabonetako marrazki lehiaketa** deitu du udalak Eskoriatzan eta Leintz Gatzagan jaio edo bizi diren 3-12 urte bitarteko umeendako. Bakoitzak lan bat aurkeztu ahal izango du ludotekan edo liburutegian abenduaren 10a baino lehen. Maila bakoitzekoen artean sari bat zozketatuko dute, eta irabazleen lanak Gabonetako egitarauan argitaratuko dira. Lan guztien erakusketa ere egingo dute kiroldegian.

Zinema

ANTZUOLA

■ **OLARAN ETXEA**

Troya
Egubakoitza: 22:00.

Asterix eta Kleopatra
Domeka: 17:00.

ARAMAIO

■ **KULTURA ETXEA**

Kill Bill 2
Egubakoitza: 22:30.

ARRASATE

■ **AMAIA ANTZOKIA**

Mar adentro
Egubakoitza: 22:00.
Zapatua: 19:30, 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

El espantatiburones
Domeka: 17:00.

Astelehena, ikuslearen eguna.

BERGARA

■ **NOVEDADES**

Collateral
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30.

Bombom, el perro
Eguena, zinekluba: 20:00.

Astelehena, ikuslearen eguna.

ELGETA

■ **ESPALOIA**

Bailar en la oscuridad
Eguaztena: 21:30.

OÑATI

■ **KULTURA ETXEA**

Conociendo a Julia
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

En busca del valle encantado
Zapatua: 17:00.
Domeka: 17:00.

Los abajo firmantes
Eguena, zinekluba: 20:00.

Astelehena, ikuslearen eguna.

EIBAR

■ **UNZAGA**

Los increíbles
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:15.

Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ **RIALTO**

Resident evil 2
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena eta martitzena: 19:30, 22:15.

Martitzena, ikuslearen eguna.

GASTEIZ

■ **GURIDI**

Cellular
Egubakoitza: 20:00, 22:30.
Zapatua eta domeka: 19:45, 22:30.

Los increíbles
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:45, 22:30.

Crimen ferpecto
17:30, 20:00, 22:30.

Bridget Jones: sobreviviré
17:30, 20:00, 22:30.

Dos colgaos muy fumaos
Egubakoitza: 17:30.
Zapatua eta domeka: 17:00.

Alien vs. Predator
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:45, 22:30.

La sentencia
17:30, 20:00, 22:30.

El lobo
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:45, 22:30.

■ **MIKELDI ZINEMAK**

Mar adentro
17:20, 19:50, 22:35.

Di que sí
17:15, 20:00, 22:30.

Anacondas
17:30, 20:15, 22:45.

Los increíbles
Egubakoitza: 17:30, 20:15, 22:45.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:45.

El lobo
17:15, 20:00, 22:30.

De-lovely
17:30, 20:15, 22:45.

Diarios de motocicleta
17:15, 20:00, 22:30.

Alien vs. Predator
17:30, 20:15, 22:45.

Bridget Jones: sobreviviré
17:15, 20:00, 22:30.

Martitzena eta eguena, ikuslearen eguna.

■ **FLORIDA-GURIDI**

Un mundo a cada rato
17:00.

La luna de Avellaneda
17:00, 19:45, 22:30.

Frío sol de invierno
17:30, 20:00, 22:30.

Cosas que hacen que la vida valga la pena
17:00, 19:45, 22:30.

Melinda y Melinda
19:45, 22:30.

Di que sí
19:45.

Contra la pared
17:30, 20:00, 22:30.

Dos hermanas
17:00, 22:30.

Shall we dance?
17:30, 20:00, 22:30.

■ **ÁBACO-LAKUA ZINEMAK**

Di que sí
16:00, 18:10, 20:20, 22:30, 01:00.

Resident evil 2
16:10, 18:10, 20:15, 22:45, 01:00.

XXL
16:00, 18:05, 20:20.

Misteriosa obsesión
22:30, 00:45.

Los increíbles
15:50, 18:10, 20:25, 22:45, 01:00.

Cosas que hacen que la vida valga la pena
16:20, 18:15, 20:15, 22:30, 00:45.

Collateral
16:45, 19:30, 22:15, 00:45.

El espantatiburones
16:15, 18:15, 20:10.

Visitantes
22:30, 01:00.

Alien vs. Predator
16:00, 18:05, 20:15, 22:30, 01:00.

Dos colgaos muy fumaos
16:15, 18:15, 20:20, 22:30, 00:45.

Gauerdiko saioak, egubakoitzean eta zapatuan. Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ **YELMO CINEPLEX-GORBEIA**

Los increíbles
12:15, 15:45, 16:45, 18:00, 19:15, 20:20, 21:45, 22:45, 00:15, 01:00.

Resident evil 2
22:15, 00:15.

El mensajero del miedo
12:15, 17:00, 19:30, 22:00, 00:30.

Anacondas
12:15, 16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.

Cellular
12:15, 16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 00:30.

Alien vs. Predator
12:15, 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

El espantatiburones
12:15, 16:10.

Bridget Jones: sobreviviré
12:15, 16:05, 18:15, 20:25, 22:35, 00:45.

Collateral
12:15, 16:25, 18:55, 21:25, 23:55.

Dos colgaos muy fumaos
12:15, 16:40, 18:40, 20:40, 22:40, 00:40.

Di que sí
12:15, 16:25, 18:25, 20:25, 22:25, 00:25.

Melinda y Melinda
18:10, 20:10, 22:10, 00:10.

El lobo
12:15, 16:30, 19:00, 21:30, 00:00.

Crimen ferpecto
12:15, 16:45, 18:45, 20:45, 22:45, 00:45.

Shall we dance?
12:15, 16:15, 18:15, 20:15.

Gauerdiko saioak, egubakoitzean eta zapatuan. Eguerdiko saioak, domekan. Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

■ **ÁBACO BOULEVARD**

Crimen ferpecto
12:10, 16:00, 18:05, 20:20, 22:30, 01:00.

Anacondas
12:20, 16:10, 18:20, 20:30, 22:40, 01:00.

Los increíbles
12:00, 12:15, 15:40, 17:00, 18:00, 19:40, 20:20, 22:15, 22:45, 00:45, 01:05.

El espantatiburones
12:20, 16:10, 18:05.

Melinda y Melinda
12:20, 17:15, 19:30.

Bridget Jones: sobreviviré
12:20 (domeka), 16:00, 18:10, 20:25, 22:35, 01:00.

El mensajero del miedo
12:15, 17:00, 19:40, 22:20, 01:00.

Cellular
12:15, 16:00, 18:10, 20:20, 22:30, 00:30.

Resident evil 2
20:00, 22:10, 00:45.

Shall we dance?
12:10, 16:05, 18:15, 20:25, 22:35, 01:00.

El lobo
12:15, 17:10, 19:50, 22:30, 01:05.

Alien vs. Predator
12:00, 16:05, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

Un toque de canela
22:00, 00:30.

Gauerdiko saioak, egubakoitzean eta zapatuan. Eguerdiko saioak, domekan. Eguaztena, ikuslearen eguna.

Melinda y Melinda: ●●●● / ***Crimen ferpecto:*** ●●● / ***Collateral:*** ●●● / ***Mar adentro:*** ●●● / ***Kill Bill 2:*** ●●● / ***Troya:*** ●●● / ***Conociendo a Julia:*** ●● /

ESKASA:● BALEKOA:●● ONA:●●● OSO ONA:●●●● BIKAINA:●●●●●

KRITIKA

DE-LOVELY

PUNTUAZIOA: ●●●

ZUZENDARIA: Irwin Winkler.
AKTOREAK: Kevin Kline, Ashley Judd, Jonathan Pryce.

Cole Porter Ameriketako Estatu Batuetako musikagile onenetakoen artean dago. Zinema eta antzerki musikalerako egindako abesti zoragarriak kantu klasiko bihurtu dira. Porter-ek bizitzari buruzko ikuspegi hedonista zuen: luxua, dibertsioa, maitasun-harremanak, gustuko zituen, eta espiritu horrek ironiaz, gatz eta bihurrikeriaz egindako hitzez eta magiaz beteriko melodien bitartez, entzuleari poztasuna eta bizipoza ematen zion.

De-Lovely-rekin, Irwin Winkler zinema ekoizle eta zuzendariak Porter-en bizitza osoa erakutsi baino gehiago, bere emaztearekin, Linda Lee Porterekin, urte askoan izandako harreman bitxiak ezagutarazi nahi ditu. Porter homosexuala zen eta amodio-harreman ugari izaten zituen. Emazteak hori dena jakin arren, ez dugu pentsatu behar bien arteko harremanak itxurak gordetzeko bakarrik balio izan zuenik; bien arteko amodioa berezia zen. Urte askoan zehar, senar-emazteen arteko krisialdiak, Porter-en istripua (zalditik erori eta hogei ebakuntza baino gehiago egin zizkioten) eta Lindaren gaixotasuna ikusiko ditugu. Eta bikotearen erretratuaz gain, entsegu, estreinaldi eta musikagilearen arrakasta handiak agertuko dira.

De-Lovely filma momentu dramatikoak eta Porter-ek gustuko zituen giroak eta festak islatzen ahalegintzen da. Egia esateko, Winkler, Kevin Kline eta Ashely Judd-en interpretazio ederren laguntzarekin, hobeto moldatzen da eszena dramatikoetan komedian eta momentu arinetan baino; ez du pertsonaiaren magia eta lilura neurri osoan aditzera ematen.

Filma Porter-en bizitzari buruzkoa denez, logikoa da abesti ugariduna izatea, eta abesti horiek gaur egungo musikari ospetsuak interpretatzen dituzte. Denetarik dago: adibidez, Robbie Williams-ek edo Elvis Costello-k ondo asmatzen dute Porter-en espiritua islatzerako orduan. Beste momentu batzuetan, adibidez, filmaren momentu gorenetariko batean, *Kiss me Kate* musikalaren *So in love* abesti liluragarria entzuten da, baina, tamalez, entzuten den bertsioa nahiko eskasa da.

ANTONIO ZABALA

KOROSTI INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
Santi Kutz 8 • LEGAZPI
Tel.: 943 73 05 25

ETXEBIZITZAK SALGAI
Bergara:
• Erdialdea 80 m². Eguzkitsua.
• Erdialdea 85 m². Berritzeko.
• Martoko 85 m². Eguzkitsua.
• Zubiaurre 45m². Berrituta.
• San Pedro 150m². Ondo.
Antzuola:
• Hamaika etxebizitza eraikin berrian. Ondo kokatuta. Garajea aukeran.
• Erdialdea 88 m². Berria.
Elgeta:
• Duplexa 140 m². Berria.
Soraluze:
• Erdialdea 57 m². Berrituta.
BASERRIAK SALGAI
• Elosun, Osintxun, Angiozarren, Soraluzen eta San Juanen.

DEBA GARAIA INMOBILIARIA
Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37
Zarugalde 1 Arrasate
T: 943 77 13 02 F. 943 73 12 40

ETXEBIZITZAK SALGAI
BERGARA:
•Erdialdea 86 m². Etxe berria.
•Masterreka 75 m². Berrituta.
•Erdialdea 90m². Oso ondo dago.
•Erdialdea 78 m². Berrituta.
•San Anton 67 m². Berrituta.
•Zubieta 70 m². Eguzkitsua.
•Erdialdea 75 m². Ganbara.
ANTZUOLA:
•11 etxebizitza berri.
ELGETA:
•140 m². Duplexa. Berria.
SORALUZE:
•Errekalde 82 m². Ondo dago.
•Rabal 42 m². Ondo dago.
BASERRIAK
•Angiozar 600 m² eta lursaila.
•Elosua 246 m². Egoera onean.

Iragarki sailkatuak

1. ETXEBIZITZAK
101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEAK OSATU
106. BESTELAKOAK

2. GARAJEAK
201. SALDU
202. EROSI
203. ERRENTAN EMAN
204. ERRENTAN HARTU
205. BESTELAKOAK

3. LOKALAK
301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. BESTELAKOAK

4. LANA
401. ESKAINTZAK
402. ESKAERAK
403. BESTELAKOAK

5. IRAKASKUNTZA
501. JASO
502. EMAN
503. BESTELAKOAK

6. MOTORRA
601. SALDU
602. EROSI
603. ALOKATU
603. KONPONDU
604. BESTELAKOAK

7. ANIMALIAK
701. SALDU
702. EROSI
703. EMAN
704. BESTELAKOAK

8. DENETARIK
801. SALDU
802. EROSI
803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. AURKITU
808. BESTELAKOAK

9. HARREMANAK
901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEIAK
904. BESTELAKOAK

10. RELAX

Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

943 76 92 71
sailkatuak@goiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 15 € (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO.
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

OÑATI
JARDUNEAN DAGOEN GAZTE MODA ETA OSAGARRI DENDA ERRENTAN.
658 75 64 65

ARETXABALETA
SUKALDARIA BEHAR DA.
ORDUTEGI ONA.
675 70 82 35

BERGARA
ARIZNOA TABERNAN ZERBITZARIA BEHAR DA.
943 76 52 30

ARRASATE
ZERBITZARIA BEHAR DA ASTE BUKAERETAN LAN EGITEKO.
GAINDEGI
610 73 35 03
943 79 70 60

ARRASATE
ZERBITZARIA BEHAR DA TABERNAN LAN EGITEKO.
943 79 61 64

OÑATI
KIWIAK SALGAI. IRABAN BASERRIKOAK. 10 KILOKO KAXAK. KALITATE-PREZIO ONA. DEITU 18:00ETATIK 20:00ETARA.
943 78 18 32

DEBAGOIENA
BEIRAZKO BITRINAK ETA SALMAHAIAK SALTZEN DITUT, ERRETIROA HARTZEN DUDALAKO.
943 31 74 56
679 33 11 90

ESKORIATZA
INKERNU TABERNAN SUKALDARIA BEHAR DA.
943 08 19 53

Garbi S.L.
PIPIEN, TERMITEN, ETA ABARREN AURKAKO TRATAMENDU ANTIXILOFAGOAK EGURREAN, ALTZARIETAN, ETA ABARRETAN.
943 33 18 37 (HERNANI)
649 84 67 09 (BERGARA)

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Antzuola. Bi logela, egongela, sukaldea, bainugela eta trastelekua. Berogailua eta gasa kanalizatuta ditu eta eguzkitsua da. Bizitzen hasteko moduan dago. 168.000 euro. 666 80 09 32.

Aramaio. Etxebizitza salgai Ibarran. Oso eguzkitsua. 63 m². Berrituta. Bizitzen hasteko moduan. Merke. Telefonoa: 945 44 53 99.

Aramaio. Etxebizitza salgai. Ortua dauka. Txoko edo trasteleku bihurtzeko erdi-sotoa dauka. Deitu 18:00etatik 22:00etara. 615 73 91 28.

Aretxabaleta. 60 m², bi logela, sukalde ederra, ganbara. Eguzkitsua, berritua. 195.328 euro. (Idoia). Telefonoa: 680 35 61 48.

Aretxabaleta. Erdialdean etxebizitza salgai. 77 m². Hiru logela, egongela, sukaldea, bainugela, bi terraza. Dena berritua. Nahi izanez gero, garajea ere bai. 943 79 30 63 edo 656 73 12 80.

Arrasate. Apartamentua erdialdean. 80m². Berrituta. 210.000 euro. 605 71 37 77.

Arrasate. Uribe auzoan. 80 m². Erabat berriztatua. Garajea, trastelekua eta ganbara ditu. 659 77 18 57.

Bergara. Bi solairuko etxebizitza salgai erdialdean, hirugarren solairuan. Lehenengo solairua berritua. Bigarren solairua trastelekua da. Prezioa: 209.753,22 euro (34.900.000 milioi pta.). 605 73 37 39.

Bergara. Etxebizitza salgai erdialdean. 72m². Telefonoa: 605 74 30 83.

Elgeta. Bigarren solairuan. Igogailua du. 645 71 76 25 edo 946 81 71 97.

Elorrio. Erdialdean, XVIII. mendeko eraikin berrituan, duplex zoragarria salgai. Eguzkitsua. 100 m². Jatorrizko egur eta harri estruktura agerian. 300.000 euro (50 milioi pezeta). Deitu goizez. 665 70 37 14.

Soraluze. Etxebizitza salgai. 144 m². Berrituta. Bi komunak eta sukaldea jantzita. Garajea eta txokoa. 615 77 99 20.

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Erdialdean. Bi logela. 630 47 35 30.

Arrasate. Iturriotz kalean. 605 75 54 52.

Costa Sancti Petri-Chiclana (Cadiz). Apartamentua errentan, urbanizazio berrian. La Barrosa hondartzatik gertu. Deitu gauez. 616 14 65 54 edo 678 78 39 10.

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Etxea hartuko nuke errentan. 2005. urte osorako. 615 00 32 31.

Bergara. Etxea hartuko nuke errentan. Bi logelakoa. 690 74 01 59.

Bergara. Etxebizitza errentan hartuko nuke. Telefonoa: 628 22 30 03.

Bergaran edo inguruan etxebizitza errentan hartuko genuke. 943 53 27 17.

Oñati. Etxea errentan hartuko nuke. 610 24 01 38 edo 943 71 80 12.

105. ETXEAK OSATU

Aretxabaleta. Etxebizitza osatzeko lagun bat behar da. 615 72 15 17.

Gasteiz. Gasteiz hiribide inguruan dagoen Gorbeia kalean etxebizitza osatzeko neska behar da. 337.000 euro. 665 72 20 85.

2/ GARAJEAK

201. SALDU

Antzuola. Beheko auzoan garajea salgai. 620 43 86 86.

Aretxabaleta. Garaje itxia salgai. 21 m². Santakurtz kalean. 609 76 16 86.

Aretxabaleta. Garaje itxia. Errekabarren kalean. 24 metro kuadro. 18.000 euro. 943 77 07 63.

Arrasate. Uarkapen garajea salgai. Javi. Deitu 10:00etatik 21:00etara. Telefonoa: 665 47 21 42.

Bergara. Ibaiondo ibiltokian, Lasai Toki elkartearen ondoan. Oso altua da eta bi solairu egin daitezke. Telefonoa: 617 82 36 74.

202. EROSI

Oñati. Garage bat erosi gura nuke, Olakua edo San Lorenzo inguruan. Telefonoa: 652 71 76 81.

203. ERRENTAN EMAN

Aretxabaleta. Lausita kalean garaje itxia. 943 79 30 74.

Arrasate. Olarte kalean. Deitu arratsaldez, mesedez. 616 70 78 91.

Arrasate. Uarkape kalean (frontoi ondoan). Telefonoa: 647 98 92 05.

Oñati. Auto bat sartzen den garajea ematen da errentan Bidebarrietan. 639 00 21 72.

204. ERRENTAN HARTU

Bergara. Garajea errentan hartuko nuke, Zubiaurren, Ozaetan edo Martokon. 679 62 69 64.

3/ LOKALAK

301. SALDU

Arrasate. Musakolan lokala salgai. 30 m². Kaletik sarrera. 943 79 66 44.

303. ERRENTAN EMAN

Bergara. Lokala errentan eman (250 euro hilean) edo salduko nuke. Mekolalde auzoan. 82 m². Ura eta argia ditu. 620 17 80 47.

304. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Gazte talde batek lokala hartuko luke. Telefonoa: 617 24 61 29.

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Aretxabaleta. Neska bat behar da sukaldeko lanak egiteko, astelehenetik domekara. 699 93 91 88.

402. ESKAERAK

Adinekoak gau eta egunez zainduko nituzke bai Debagoienean eta baita Debabarrenean ere. Lujaina. 943 77 13 64.

Arrasate edo Bergara. Neska bat propaganda banatzaile lan egiteko prest. 675 00 98 14.

Arrasate. Emakume bat gertu dago edozein lan egiteko. 659 82 75 18.

Banatzaile lana egiteko gertu dago mutil bat. Telefonoa: 943 76 71 93.

Bergara edo Antzuola. Neska arratsaldez etxeko lanak egiteko edo edadetuak zaintzeko prest. Esperientziaduna. (Elena). 699 31 91 89 edo 626 30 89 36.

Bergara eta Antzuola. Neska zainketa edo garbiketa lanak egiteko prest. Bai etxeetan zein taberna eta abarretan. Arratsaldez. Telefonoa: 943 76 63 10.

Bergara. Neska goizetan lan egiteko prest. 699 71 28 97.

Bergara. Neska lanerako prest. 685 70 46 97.

Debagoiena. Emakume euskalduna gertu pertsona nagusiak zaintzeko. Esperientziaduna. 943 08 12 80.

Debagoiena. Emakumea arratsaldez lan egiteko gertu. 696 84 19 51.

Debagoiena. Emakumea gertu umeak zaintzeko eta garbiketa-lanak egiteko. 650 76 77 80.

Debagoiena. Emakumea nagusiak zaintzeko edo beste edozein lan egiteko gertu. Gaua pasatzeko gertu, beharrezkoa balitz. 666 24 85 95.

Debagoiena. Gizonezko bat lan bila dabil. Lorazain, garbitzaile, zerbitzari edo sukaldari lanak egingo lituzke. 645 72 92 87.

Debagoiena. Mutil gaztea lanerako gertu. 690 74 01 59.

Debagoiena. Mutila lanerako gertu. 615 76 83 48.

Debagoiena. Gizonezko bat lan bila dabil. Lorazain, garbitzaile, zerbitzari edo sukaldari lanak egingo lituzke. 639 08 30 59.

Debagoiena. Neska arratsaldez lan egiteko gertu. Adineko pertsonak zaindu edo etxeko lanak egingo nituzke. 655 71 04 20.

Neska eskaintzen da garbiketa lanak egiteko, eta umeak edo edadetuak zaintzeko. Arrasaten, Aretxabaletan eta Eskoriatzan lan egingo luke. 627 15 41 39.

5/ IRAKASKUNTZA

501. JASO

Aretxabaleta. 14-16 urtekoei euskara eta matematika irakatsiko dizkien norbait nahi dugu. 636 46 56 33.

Bergara. Neska bat behar da etxean eskolak emateko. Deitu 21:00etatik aurrera. Ana. 943 76 03 75.

DBHko eskolak hartuko nituzke, Arrasaten. Telefonoa: 943 79 92 44.

502. EMAN

Aretxabaleta. Ingeles eskolak ematen dira. 943 79 03 83.

Arrasate. Behar bereziak dituzten umeei laguntza eskolak emango nizkieke. 645 73 04 69.

Arrasate. Haur Hezkuntzako irakasle euskalduna gertu arratsaldez eskola partikularrak emateko, haurrak zaintzeko, eta abar. Mireia. 659 72 77 11.

Bergara. Eskolak ematen dira eguerdietan. Telefonoa: 647 62 93 13.

Bergara. Zientzietan lizentziaduna DBHko ikasleei eskolak emateko gertu. 626 71 97 71.

Oñati. Neska batek DBHrainoko eskola partikularrak emango lituzke. Telefonoa: 943 78 31 26.

6/ MOTORRA

601. SALDU

Autokarabana. Fiat Ducato 1.9TD. Mizar 130. Sei lagunendako tokia. Oso egoera onean. Beti garajean. Telefonoa: 943 78 15 63 edo 653 70 45 47.

BX TRD Turbo Autoa salgai. 950 euro. Telefonoa: 679 12 48 61.

Ford Fiesta salgai. 1.8 diesela. 1995ekoa (SS-AV). Zuria. 660 05 04 10.

Ford Fiesta salgai. 1100 cm³. Zuria. 629 40 74 37.

Golf GTI autoa salgai. SS-AF, egoera onean. Telefonoa: 652 77 71 08.

Husqvarna TE350 4T enduro motorra salgai. Oso ondo dago. Matrikulatua. Dokumentazioa eguneratuta. 2.250 euro. Telefonoa: 669 08 42 35.

Kawasaki 500 Vulcan motoa salgai. Imanol. Telefonoa: 656 75 49 93.

KTM Exc 250 motorra salgai. 2003koa. 4.500 euro. 636 84 96 97.

Opel Frontera autoa salgai. 5 urte. 66.000 kilometro. Egoera onean. 699 28 29 28.

Opel Zafira salgai. Bi urte eta erdi ditu. 9.000 euro. 650 40 27 81.

Opel Frontera autoa. 5 urte, 66.000 km. Oso ondo dago. 699 28 29 28.

Renault Expres 1.9 salgai. Bost lagunendako lekua. Egoera onean. Telefonoa: 619 28 63 30.

Scooter 49. RF Suzuki. 943 76 71 93.

Seat Ibiza GTTDI 110 ZP salgai. 1998koa. Telefonoa: 667 60 32 01.

Toyota 2.0 TD salgai. Bost urte. Egoera onean. Kristaligogailu elektrikoak, itxitura zentralizatua. Aluminiozko hagunak (llantak). Telefonoa: 652 77 52 26.

Volkswagen Jetta autoa salgai. 14 urte ditu. 1.800 euro. 699 40 74 21.

Yamaha WR 250 F. 4T. Enduro. 2002koa. Matrikulatua: BRR. Egoera onean. Telefonoa: 943 79 89 82 edo 665 75 03 73.

7/ ANIMALIAK

701. SALDU

Kanario berde tinbredunak prezio onean. Telefonoa: 943 76 41 87.

702. EROSI

Txakur emea behar dut setter irlandar batekin gurutzatzeko. Telefonoa: 655 71 81 29.

703. EMAN

Txakurrak adoptatzeko. Artzakur bat, pekindar nahasketa bat, bi setter ingeles eta bi artzain-txakur aleman. Elurra txakurtegia 679 19 77 56. 679 19 77 56.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Akuarioa salgai, 100 litroko edukiera. Telefonoa: 943 79 92 44.

Emaztegai-soinekoa salgai. Neurria: 38. 2004koa. Oso polita. Prezio negoziagarria. 666 04 15 97.

Eskanerra. Agfa Arcus II eskaner profesionala salgai. 943 76 99 76.

Kiwiak eta babarrunak salgai. Kalitate ona. Telefonoa: 943 78 70 52.

Lange XR 75 eski botak salgai. 42 zenbakia. Berriberriak. 150 euro. Telefonoa: 626 66 84 27.

Lursaila. Pinudia salgai Eskoriatzan. 5.000 m². Telefonoa: 617 91 12 43.

Mugikortasun arazoak dituzten gaixoendako garabia salgai. Berri-berria, prezio interesgarria. Telefonoa: 943 78 71 26.

Ohe bi dituen armairu erainsgarria salgai. Koltxoiak ere emango nituzke. 300 euro. 646 86 81 31.

Ordenagailu pantaila. 17"-ko Apple pantaila salgai. Mac eta PCrekin erabilgarria. 943 76 99 76.

Teila zaharrak salgai. Prezio onean. 943 76 41 87.

Ur berogailua salgai. Bi urte ditu, eta Fagor etxeko FT-11 Men modeloa da. Iluntzean deitu. 943 79 96 31.

802. EROSI

Gitarra. Bigarren eskuko gitarra elektriko bat erosi nahi dut. 645 70 51 45.

Bergara. Artzain txabola erosiko nuke. Botata badago hobeto. 620 17 80 47.

Ohatila eramangarria erosiko nuke, masajerako. Deitu gauez edo utzi mezua. Telefonoa: 943 76 09 99 edo 617 07 25 95.

806. GALDU

Bergara. Eskumuturrekoa galdu dut. Ibargarai kaleko errotondatik Mariaren Lagundia ikastolara bitartean. Urre zurikoa da. Telefonoa: 943 76 58 48.

Betaurrekoak. Aretxabaleta-Eskoriatza bidean. Finfinak dira. Kolore urdinxka dute. 665 70 92 18.

Sakelako telefonoa. Debagoienean Mitsubishi Trium sakelakoa galdu dut. Aurkitu baduzu, dei iezadazu. 943 77 15 80.

807. AURKITU

Forru polarra aurkitu dut Aloñako maldetan. Telefonoa: 943 78 16 88.

Forru polarra aurkitu dut Elgeako mendizerran, Mugarriluzetik gertu. Trango markakoa, urdina, M neurrikoa. 943 79 12 00.

Bergarako Udal Euskaltegia

EUSKARA IRAKASLEA eta LAN POLTSA

Bergarako Udal Euskaltegiak euskara irakasle bat kontratatu eta lan poltsa osatu behar du lehiaketa-oposizio bidez.

Lehiakideen baldintzak:
• Magisterio agiria edo Unibertsitateko diplomatura
• Laugarren hizkuntza eskakizuna

Instantziak:
Instantziak aurkezteko epea 2004ko abenduaren 9an, 12:30ean bukatuko da.

Oinarriak:
Udal Euskaltegian (Zabalotegi 13)

Informazioa:
GAO 2004-11-19
943 76 44 53
berg.eusk@udal.gipuzkoa.net

AIPAGARRI

Diego Martiartu

ARRASATE

Txalaparta argitaletxeak *Lehenengo aldia* izeneko liburua kaleratu du. 13 idazlek idatzitako ipuin erotiko bana biltzen du liburuak. Horietako ipuin bat Diego Martiartu arrasatearrak idatzi du. *Lehenengo aldia* liburua Juan Martin Elexpuruk zuzentzen duen *Literotura* bilduman sartu dute.

Luxio Ugarte

OÑATI



Eguaztenean *Sinfonia o Jazz? Koldo Saratxaga y el modelo Irizar* liburua aurkeztuko du Luxio Ugarte oñatiarrak. Donostiako Kursaal jauregian aurkeztuko du eta Juan Jose Ibarretxe lehendakaria ere hantxe izango da. Luxio Ugarte irakaslea da HUHEZIn eta arduradu-na Praktiker institutuan.

Josu Velasco

ARETXABALETA

Aretxabaletatik Jerusalemera joan da bizikletan Josu Velasco. Bederatzi hilabete behar izan ditu Jerusalemera heltzeko; batez beste, 70-80 kilometro egin ditu egunero. Orain hitzaldiak, liburua eta webgunea egin gura ditu, beste bidaiari batzuei laguntzeko, hain zuzen ere.

HILDAKOAK

Jabier Zugasti Arrillaga. Arrasaten, azaroaren 19an. 52 urte

Rafael Moto Sierra. Eskoriatzan, azaroaren 21ean. 69 urte.

Isabel Lizarazu Igartua. Oñatin, azaroaren 23an. 94 urte.

Juan Ramon Agiriano Aiastui. Bergaran, azaroaren 23an.49 urte

Jabier Zugasti Arrillaga. Arrasaten, azaroaren 23an.49 urte

Maria Rosario Txapartegi Iturrino. Elgetan, 24an. 77 urte.

Inazio Zeziagak eta **Arantza Mondragon**ek urrezko ezteiak egin zituzten atzo, hilak 25, eta eguna zapatuan ospatuko dute familiakoekin batera. Uribarrin meza izango dute eta gero bazkaria. Zorionak, familiaren partetik!

Bergarako **Txomin Lete** eta **Felisa Txintxurrreta** 1954ko azaroaren 24an ezkondu ziren Antzuolan. Bihar, azaroaren 27an, urrezko ezteiak ospatuko dituzte Antzuolako Antiguako elizan. Zorionak, familiaren partetik!

Maribel Navas eta **Julio Vicente** 1954ko azaroaren 27an ezkondu ziren Bergarako San Pedro elizan. Bihar, zapatua, urrezko ezteiak egingo dituzte eta senideekin batera ospatuko dituzte Arantzazun. Zorionak, familiaren partetik!

Jose Ignacio Arregi eta **Belen Azkargorta** 1979ko abenduaren 1ean ezkondu ziren. Datorren eguaztenean, beraz, 25 urte egingo dituzte ezkonduta. Zilarrezko ezteiak ospatuko dituzte senideekin batera. Zorionak, familiaren partetik!

Eskela, urteurren meza edo eskertzarik jarri nahi baduzu, etor zaitez GOIENKARIAren ordezkaritzetako batera.

GOIENKARIA
Astero 21.500 etxetan.
Eskelen prezioa: 80 €.

URTEURRENA

Maribel
Belategi Lopez de Eguino

Lehen urteurreneko meza zapatuan, azaroaren 27an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Gregoria
Elortza Ugarte

Lehen urteurreneko meza domekan, azaroaren 28an, 12:00etan, Aramaioko Etxaguengo auzoko elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

GIARTZU DERMOESTETIKA ZENTROA
Boni Laskurain 3
BERGARA
943 76 35 71

Laser bidezko depilazioa

Ile kalitate bakoitzerako laser bat:
- **Alexandrita laserra:** ile mehe eta argiendako
- **Neodimio Yag laserra:** ile lodi eta ilunendako

Gainbegiratze espezializatua

Proba DOAN ordua eskatuta

Txuringo
Jatetxea

Osintxu
Tel.: 943 76 48 63

NEGUAN
Igandeetan itxita,
baina enkarguak hartzen dira

- **Menua**
- **Asteburuetan menu berezia**
- **Ehiza**
- **Enkarguz:**
  - **Babarrun-jana**
  - **Arkume errea**
  - **Txerrikumea**

- **Antzinako egurrezko altzarien zahar berritzea**
- **Habeen saneamendua**

LA VIRGEN DE MURILLO
Bidebarrieta 23, 6.
EIBAR
943 20 16 41

HITZGEZIDUNAK

Luma

		*Izena / Zaletasun			Ardo hitz-elkartetan / Kulpaduna			Lama, garra (ald.)
		Hizkuntza indoario / Urrearen ikurra						
Zuberoako herrixka / Aberats		Zeharo / 2. musika nota						
								Nagusi, gidari
Helioaren ikurra / Omen			... Harris, aktorea / Doministiku				Odol-talde bat / Ahotsa trabatuz	
		Maiztu / Euria gelditu						
Etxeko erregai / Atxilotu				Zein / *Deitura				
Infin., hartu	Nire / Gipuzkoako herria				Ukatzeko / Bigarren bokala			
			Hori... eta, horregatik / Silaba hinduista					
Txerritegi / Logelako mahaitxo					Kilogramo / Hidrogenoa			

BILABILA7





UMOREGIROAN/ Pedro Zelaia

Pedro Zelaiak argitaratutako txiste bilduma-liburutik hartuta.

BUELTA A FRANTZIAN

Vuelta Frantzia korritzen zan egun aietan. Gilanian, maixan jarritxa, txirrinduzale mordoxka bat zegoan AS errebistia aurrian zeukatela. Koloretako orri asko agertzen ziran Vuelta Frantzia-ko pasadizuak kontatzen. Erdi-erdikuan an ikusten zan ziklista pilla aundi bat. Pelotoian zoiazen. Danak arritxuta geratu ziran fotografixa arekin. An zeguan Markox be, tente, adurra darixola txirrindulari pilla aura ikusten. Batek esan zeban:

- Onek goruntz ala beruntz joiazak?

- Orrek? Beruntz –esan eban Markoxek–.

- Zelan dakik ori?

- Pedalari emon barik joiazak-eta.

BELIA ANTIAJUEKIN

Baziarduan Belia-k, Alfan, esmeril arrixan kutxillua zorrozten. Baiñan antiojo barik. Onetan pasau da andik Biteri medikua eta diñotsa:

- Antiojo barik ago. Olan eztitxuk egongo ba azidentiak!

Eta Belia-k:

- Nik bajakixat ik zer nai duan: Belia antiojuekin ikustia.

EZETZASMATU!

Estepan Plazaola

BUA.ROMAN LARRAÑAGA FONDOA

Zer ez da egia Monzonen gainean?

Telesforo Monzonek arlo asko jorratu zituen bere bizitzan. Politikagintzari dagokionez, EAJko kide izan zen hasieran eta gerora EAJ utzi eta ezker abertzalearekin bat egin zuen. Literaturaren aldetik ere lan oparoa egin zuen eta hainbat liburu argitaratu zituen: antzerki-lanak, olerkiak... Baina Telesforo Monzonen eginak kontatzen hasita, jarraian emango ditugun lau ekintzetatik bat ez da egia. Asmatuko zenuke zein?

- 1936an Ertzaintza sortu zuen.
- Bergarako zinegotzi aukeratu zuten 1931n.
- *Bai Euskarari* kantaren egilea izan zen.
- ETAren sortzaileetako bat izan zen.

Erantzun zuzena: ETAren sortzaileetako bat izan zen.

SOLUZIOAK





ASTEKOHOROSKOPOA

Gipuzkoako Astrologi Elkartea

ARIES
martxoak 21-apirilak 21

Atzerrira bidaia bat egingo duzu eta jende berria ezagutuko duzu. Gainera, atzerrian inbertsioak badituzu, irabazi handiak emango dizkizute.

TAURUS
apirilak 22-maiatzak 21

Urduri eta beldurti jokatzeak ez du zentzurik; konfiantza handiagoa izan behar duzu zeure buruarengan. Bestalde, edozein proiektu hasi behar duzula ere, ondo zehaztu eman beharreko pauso guztiak.

GEMINI
maiatzak 22-ekainak 21

Arazoak izango dituzu lagun batzuekin, zure borondate onaz aprobetxatuko dira-eta. Bestalde, ahalegin zaitez etxeko lanak banan-banan egiten, eta ez guztiak aldi berean.

CANCER
ekainak 22-uztailak 22

Bizkarreko arazoak izango dituzu, eta horren ondorioz atseden hartu beharko duzu hainbat egunez. Eta, hain zuzen, gaixorik zauden horretan konturatuko zara zein bakarrik zauden.

LEO
uztailak 23-abuztuak 22

Ahalegin zaitez eginkizun batzuk beste batzuen esku uzten; bestela, osasun arazoak izan zenitzake eta lanean gorantz egiteko aukera polita gal zenezake.

VIRGO
abuztuak 23-irailak 22

Oso sasoi egokia da edozein motatako proiektuak abian jartzeko, lana dela edo beste zerbait dela; izan ere, oso gogotsu eta energiaz gainezka zaude.

LIBRA
irailak 23-urriak 22

Nagitasunak eta erosotasunak arazoak eragingo dizkizute, batez ere lanean. Bestalde, bikotekidea badaukazu, asperraldiak beste neska/mutil batzuekin harremanak izatera bultza zaitzake, baina haiekin arazoak bakarrik izango dituzu.

SCORPIUS
urriak 23-azaroak 22

Behar handia duzu aldaketak egiteko: zure itxura aldatzeaz gainera, etxeko dekorazioan ere hainbat aldaketa egingo dituzu.

SAGITTARIUS
azaroak 23-abenduak 21

Jolas egiteko eta aldi berean neska/mutil batekin baino gehiagorekin amodio-kontuetan ibiltzeko duzun joerak eragin zuzenak izango ditu: bikotekide egonkorra badaukazu, hark utzi egingo zaitu.

CAPRICORNUS
abenduak 22-urtarrilak 20

Hobekuntzak lanari dagokionez, batez ere soldatan. Gainera, zure ekimen eta proiektuak aintzat hartuko dituzte nagusiek, eta, hori dela eta, zeure buruarekin seguru eta pozik sentituko zara.

AQUARIUS
urtarrilak 21-otsailak 20

Ez zaude konforme daramazun bizimoduarekin; hori dela eta, hainbat aldaketa edo zehaztapen egin gura izango dituzu. Bestalde, burukomin handiak izango dituzu.

PISCIS
otsailak 21-martxoak 20

Liskarrak eta iskanbilak izango dituzu zure ingurukoekin, batez ere bikotekidearekin; izan ere, joera handia duzu biktimarena egiteko eta gauzak manipulatzeko. Ez baduzu jarrera hori aldatzen, lagunak eta familiartekoak zugandik aldenduko dira.

GIPUZKOAKO
ASTROLOGI ELKARTEA

Azaroaren 29a: 023 zozketa

Harpidedunen txokoa

Sariak, astero!

Astelehenean, azaroak 29, sari hauek izen-abizenak izango dituzte.
Asteleheneko Goienkaria-ren harpidedun bazara, adi:

Zeu izan zaitezke sari hauen irabazleetako bat!

Azaroaren 29ko sariak

- **SAMSUNG DVD-707** erreproduzitzaile zoragarria.
- Hamar gonbidapen, saridun bakoitzarendako bi, abenduaren 3an Elgetako Espaloia antzokian egingo den **DANBAKA** kontzerturako.

ITSAS-BIDAIA MEDITERRANEOAN!
Bi lagunendako itsas-bidaia zozketatuko dugu. Zorte on!

Laguntzailea: VIAJES IBERIA

BALDINTZAK

- *Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 21:00etara.

ESKAINTZA BEREZIA

Harpidetza kuota, 35 euro!

2004 eta 2005 osoko harpidetza kuota.

ASTELEHENEKO **Goienkaria**

astelehenean, **aste bukaera osoa**

022 zozketa saridunak

Hauek izan dira aurreko zozketako irabazleak.
Zure izena zerrendan badago, ZORIONAK!

Sei gonbidapen, EIBAR-LLEIDA partidua ikusteko, saridun bakoitzarendako bi
- Valentin Lasa Arantzadi (Oñati)
- J. Antonio Urkia Uriarte (Oñati)
- Josean Kerexeta Lizarazu (Bergara)
- Iker Zubiria Murgiondo (Aretxabaleta)
- Manuel Urtzelai Martinez (Oñati)
- M. Isabel Isasmendi Romaratezabala (Eskoriatza)

'IPUN KLASIKOAK' umeendako liburua.
- Karmen Madina Dorronsoro (Oñati)

'MAITEMINDUAK' umeendako liburua.
- Ane Mujika Sorozabal (Bergara)

Hamar gonbidapen, saridun bakoitzarendako bi, abenduaren 3an Elgetako Espaloia antzokian egingo den DANBAKA kontzerturako.
- M. Isabel Anduaga Kortabarria (Oñati)
- Jose Irazabal Aranzabal (Bergara)
- Ane Zabaleta Etxeberria (Bergara)
- Javier Altube Alberdi (Oñati)
- Julian Zubizarreta Isasmendi (Arrasate)
- J. Carlos Barrutiabengoa (Bergara)
- Aitz-Garbi taberna (Antzuola)
- Gotzon Elkoro Gabilondo (Elgeta)
- Jaione Intxausti (Bergara)
- Belen Baltzategi Etxabeguren (Oñati)

'IPUN KLASIKOAK' umeendako liburua.
- Karmen Madina Dorronsoro (Oñati)



‘Filma’

ASTEBURUA / ***ikus beheko taula**

‘Debarri’

MARTITZENA 30 / **21:00 eta 23:00**



‘Danbaka’

MARTITZENA 30 / **22:00 eta 00:00**

‘Danbaka’

EGUENA 2 / **21:30 eta 23:00**

‘Haizearen Saratsetan’ izeneko euskarazko filma

Sator bakartiaren abenturak izango dituzue ikusgai oraingo asteburuan GOITBn. *Haizearen Saratsetan* izeneko filmak udaberria iritsi eta bere zulotik irteten duen sator ausartaren istorioa kontatuko dizue.

‘Debarri’-k Oñatin egingo du martitzenean geldialdia

Alberto Gorritibereak zuzentzen eta aurkezten duen saioa, *Debarri*, Oñatiren gainekoa izango da. Albertok Andoni Gartzia alkatea elkarrizketatuko du. Saioan bertan, gainera, ikusleek galderak egiteko aukera izango dute.

Malenkonia taldearen kontzertua Elgetako antzokitik

Hasiberriak izan arren, kontzertu bikaina eman zuten Malenkoniakoek. GOITBk martitzenean, hilak 30, eskainiko du oñatiarren kontzertua. Ikusi gura baduzu, 21:30ean duzu lehen aukera eta 23:00etan bigarrena.

Muted taldearen doinu gogorrak ‘Danbaka’ saioan

Metal elektronikoarekin egindako doinuak gustuko badituzue ez galdu egueneko *Danbaka* saioa. Muted taldearen kontzertu bortitza ososorik ikusteko eta entzuteko aukera izango duzue. Ez galdu!

TELEBERRIAK

ETB saritu dute saio baten tratu txarrak salatzeagatik

Gizarte Gaietarako Espainiako Ministerioak tratu txarren inguruan egindako erreportaje sorta batengatik saria eman dio Euskal Telebistari. Urteko telebista lanik onena izateagatik nabarmendu zuten. Jasone Agirre kazetaria izan zen egilea eta berak jaso zuen saria Madrilen, Jesus Caldera ministroaren eskutik. Publizitate, hedabide eta komunikazio arloko profesionalen artean banatzen dituzte urtero sari horiek. Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Institutuak banatzen ditu eta gaiari eskainitako trataera eta ikuspuntuagatik nabarmendu dituzte Jasone Agirreren erreportajeak. ETBko albistegietan eskaini zituzten lan horiek joandako maiatzean.

ASTEKOPROGRAMAZIOA/ Azaroaren 26tik abenduaren 2ra

EGUBAKOITZA 26	ZAPATUA 27	DOMEKA 28	ASTELEHENA 29	MARTITZENA 30	EGUAZTENA 1	EGUENA 2
13:50 **Marrazki bizidunak:** Kalimero 14:15 **Berriak** 14:45 **Behazulo** 15:15 **Danbaka:** Isarevolution 15:45 **Berriak** 16:15 **Klip@** 19:30 **Emisio hasiera** 19:35 **Gaurkoak** 19:45 **Klip@** 20:00 **Berriak** 20:25 **Danbaka tartea** 20:30 **Marrazki bizidunak** 21:00 **Ilunpean:** Pako Aristi 21:30 **Gure lanbide zaharrak** 22:00 **Berriak** 22:25 **Danbaka tartea** 22:30 **Ilunpean** 23:00 **Gure lanbide zaharrak** 23:30 **Gaurkoak** 23:45 **Emisio amaiera**	11:00 **Behazulo** 11:35 **Danbaka:** Izas bakarlaria 12:05 **Danbaka tartea** 12:10 **Marrazki bizidunak:** Kalimero 13:30 **Oinak izarretan** 14:00 **Filma:** Haizea saratsetan 15:15 **Ilunpean** Pako Aristi 15:45 **Danbaka:** Isarevolution 16:15 **Danbaka tartea** 16:30 **Bi eta bat** 17:00 **Iragana gogoratuz** 17:30 **Klip@** 17:45 **Behazulo** 18:15 **Danbaka:** Izas bakarlaria eta Isarevolution 19:15 **Danbaka tartea** 19:25 **Erakusleiho** 19:45 **Emisio amaiera**	11:00 **Filma:** Haizea saratsetan 12:15 **Marrazki bizidunak:** Animalikeriak 13:10 **Danbaka:** Isarevolution 13:40 **Danbaka tartea** 13:55 **Oinak izarretan**. 14:25 **Erakusleiho** 15:00 **Klip@** 15:15 **Gure lanbide zaharrak:** Elikagaiak 15:45 **Filma** 17:00 **Danbaka:** Izas bakarlaria 17:30 **Danbaka tartea** 17:35 **Bi eta bat** 18:05 **Ilunpean** 18:35 **Iragana gogoratuz** 19:00 **Emisio amaiera**	13:50 **Marrazki bizidunak:** Kalimero 14:15 **Berriak** 14:40 **Danbaka tartea** 14:45 **Ilunpean** 15:15 **Gure lanbide zaharrak:** Elikagaiak 15:45 **Berriak** 16:10 **Danbaka tartea** 16:15 **Klip@** 19:30 **Emisio hasiera** 19:35 **Gaurkoak** 19:45 **Klip@** 20:00 **Berriak** 20:25 **Danbaka tartea** 20:30 **Marrazki bizi dunak:** Kalimero 21:00 **Harmailatik** 22:00 **Berriak** 22:25 **Danbaka tartea** 22:30 **Harmailatik** 23:30 **Gaurkoak** 23:45 **Emisio amaiera**	13:50 **Marrazki bizidunak:** Animalikeriak 14:15 **Berriak** 14:40 **Danbaka tartea** 14:45 **Harmailatik** 15:45 **Berriak** 16:10 **Danbaka tartea** 16:15 **Klip@** 19:00 **Emisio hasiera** 19:05 **Oinak izarretan** 19:35 **Gaurkoak** 19:45 **Klip@** 20:00 **Berriak** 20:30 **Marrazki bizi dunak** 21:00 **Debarri:** Oñati 22:00 **Danbaka:** Malenkonia 22:30 **Berriak** 23:00 **Debarri** 00:00 **Danbaka** 00:30 **Gaurkoak** 00:45 **Emisio amaiera**	13:50 **Marrazki bizidunak:** Kalimero 14:15 **Berriak** 14:45 **Oinak izarretan** 15:15 **Danbaka:** Malenkonia 15:45 **Berriak** 16:15 **Debarri** 17:15 **Klip@** 19:30 **Emisio hasiera** 19:35 **Gaurkoak** 19:45 **Klip@** 20:00 **Berriak** 20:25 **Danbaka tartea** 20:30 **Marrazki bizidunak** 21:00 **Iragana gogoratuz** 21:30 **Bi eta bat** 22:00 **Berriak** 22:25 **Danbaka tartea** 22:30 **Iragana gogoratuz** 23:00 **Bi eta bat** 23:30 **Gaurkoak** 23:45 **Emisio amaiera**	13:50 **Marrazki bizidunak:** Animalikeriak 14:15 **Berriak** 14:40 **Danbaka tartea** 14:45 **Iragana gogoratuz** 15:15 **Bi eta bat** 15:45 **Berriak** 16:10 **Danbaka tartea** 16:15 **Klip@** 19:30 **Emisio hasiera** 19:35 **Gaurkoak** 19:45 **Klip@** 20:00 **Berriak** 20:30 **Marrazki bizidunak:** Animalikeriak 21:00 **Behazulo** 21:30 **Danbaka** Muted 22:00 **Berriak** 22:30 **Behazulo** 23:00 **Danbaka** Muted 23:30 **Gaurkoak** 23:45 **Emisio amaiera**
21:00 **Ilunpean**	14:00 **Filma**	14:25 **Erakusleiho**	21:00 **Harmailatik**	21:00 **Debarri**	21:00 **Iragana gogoratuz**	21:30 **Danbaka**

GOIENA TELEBISTA / Posta elektronikoa: **goitb@goiena.com** • Telefonoa: **943 71 23 95**

Nadal Studio irudi bat eskura dezakezu!

Rafa Oparietako **hileko bezero onenak** Nadal Studio markako irudi bat jasoko du.

Artisau-lanak dira.
50 eurotik **120** eurorainoko prezioa dute.

Abenduan, hiru bezero onenek irudi bana jasoko dute.

• Txartelak metagarriak dira.
• Oinarriak eta irudiak dendan bertan daude.

Zatoz! Opari finagorik ez duzu topatuko!

Rafa

RAFA OPARIAK
Eroski merkataritza etxea, 3. lokala
Telefonoa: 943 79 76 03

Añai erretegia

Nardeaga 32 / ARAMAIO
945 44 51 01

Eskaintza
- Bataio eta jaunartzeak
- Kintadak
- Karta

Berezitasunak
- Arraina eta okela parrillan
- Etxeko postreak

Egubakoitzetan, zapatuetan eta domeketan zabalik

Baster-Alde

Galartza auzoa / ARETXABALETA
943 79 24 58

Eskaintza
- Menua eta karta
- Ezkontzak
- Jangela: 160 lagunendako
- Jaunartze eta bataioak
- Kintadak
- Terraza
- Aparkalekua

Astelehenetan itxita

Dragon Oriental

Araba etorbidea 3 (Super BM ondoan) / ARRASATE
943 79 85 33

Txinatar jatetxea

Eskaintza
- 140 lagunentzako jangela
- Aparkaleku ezin hobea
- Janaria etxera eramaten dizugu

Eguneko menua eta karta

Gure Ametsa jatetxea

LEINTZ GATZAGA
943 71 49 52

Eskaintza
- Ezkontzak
- Jaunartzeak eta bataioak
- Hiru jangela
- Aparkaleku handia
- Umeendako jolaslekua

Astelehenetan itxita

Pildain jatetxea

Udala auzoa 14 / ARRASATE
943 79 11 65 / 943 77 18 40

Eskaintza
- Eguneko menua
- Lagun arteko afariak
- Bataio eta jaunartzeak
- Ogitartekoak eta kazuelatxoak

Berezitasunak
- Bildotsa labean erreta
- Babarrunak
- Arraina
- Etxean egindako ogia

Torrekua jatetxea

Ibargarai 37 / BERGARA
943 76 50 99

Eskaintza
- Eguneko menua
- Karta
- Kintadak
- Bataio eta jaunartzeak

Berezitasunak
- Batik bat arraina
- Itsaskia
- Txuletak

Unzueta jatetxea

Zabola auzoa / ARAMAIO
945 44 50 95

Eskaintza
- Eguneko menua
- Karta
- Bataio eta jaunartzeak
- Lagun afariak

Berezitasunak
- Parrilla: okela eta arraina
- Etxeko postreak

Egunero zabalik

Zotz jatetxea

Zubillaga auzoa 1 / OÑATI
943 78 35 45

Eskaintza
- Eguneko menua
- Ogitartekoak
- Hamarretakoak

Berezitasunak
- Menu bereziak egubakoitz eta zapatuetan

Igandeetan itxita

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

Argitaratzailea: Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 Arrasate
Egoitza nagusia: **BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta-e: *goienkaria@goiena.com*
Ordezkaritzak: **Arrasate** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta-e: *arrasatepress@goiena.com*
Aretxabaleta 20550 Durana 11 • 151 posta-kutxa • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta-e: *aretxagazeta@goiena.com*
Publizitatea: **Arrasate** 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93 • Posta-e: *publi@goiena.com*
Lege Gordailua: NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 18.228 ale • **Difusioa:** 18.185 ale.
HARPIDETZA: **943 79 21 00** • Posta-e: *harpidetza@goiena.com*
Goiena Komunikazio Zerbitzuak
OJD erakundeak ikuskatutako astekaria
EGUBAKOITZA, 2004ko azaroaren 26a

Atzeskua

OIHANA ELORTZA

Goiz-Eder Ormazabal/ AP-1 autobideko langilea

Zenbatzen dituzu pasatzen diren autoak? Ez beti. Behin 800 auto zenbatu nituen nire errelebuan. Ordenagailuak nik sartzen ditudan txartel guztiak zenbatzen ditu, baina guk ez ditugu datu horiek ikusten. Gauez, ordea, askoz auto gutxiago pasatzen dira; 100era ere ez dira heltzen batzuetan, pentsa.

Beldurrik izaten duzu gaueko txandan?

Abuztuan hasi nintzen hemen lanean eta orain arte ez dut beldurrik izan, benetan. Liburuak ekartzen ditut beti eta irakurtzen pasatzen ditut gauak. Irratia eta telebista ere baditut kabina barruan. Gustatzen zait gaueko txanda.

Ze umore izaten dute gidariek?

Batzuek oso txarra, auto ilarak sortzen direnean batez ere.

Goizeko lehen orduetan, adibidez, gidariaren ondokoa, normalean, lo etortzen da eta gidariak hitzik esan gabe ordaintzen du. Eguerdi aldera eta arratsaldean, ordea, askoz hiztunagoak izaten dira gehienetan.

Eguraldiaz hitz egiten duzue bakarrik ala ligatzeko ere balio du?

Badira "egun on, bihotza" esaten dizuten gidariak ere, autoan bakarrik ez datozenak batez ere, baina normalean eguraldiaz edo zirkulazioaz hitz egiten dugu. Askotan nik hitz egiten diet gehiago: Zumaian ea lainoa joan den edo duten autoak zenbat balio duen galdetzen diet, adibidez.

Autoei erreparatzen diezu?

Bai! Gainera, auto bat erosteko asmoa daukat, eta gustuko modeloa datorrenean, ea zer moduzkoa den galdetzen diot gidariari.

Gidari asko ezagunak izango dituzu, ezta?

Garraiolariak, batez ere; egunero pasatzen dira eta gidari asko ezagutzen ditut.

Galduta dabiltzan gidariak ere heltzen dira?

Ipiñarriko ordainlekutik pasatzen diren auto gehienak Bilbotik datoz. Baita Elgoibar eta Eibartik ere, baina Donostia aldetik oso gutxi. Ordaintzen ari diren bitartean askok galdetzen dute ea Arrasate edo Beasainera nondik joan behar duten. Bergarako kaleren bat non dagoen ere sarri galdetzen dute banatzaileek.

Guztiek ordaintzen dute bidesaria?

Ez. Ordaindu nahi ez dutenen autoen modeloa eta matrikula apuntatzen ditugu eta nagusiei entregatu.

Bestalde, aste barruan txartelarekin ordaintzen dute gidari gehienek, asko eta asko enpresako autoak dira-eta. Asteburuetan, aldiz, txanponak edo billeteak erabiltzen dituzte. Oso nabarmena da aldea.

Agudo ixten duzu kabinako leihoa auto batetik hurrengora bitartean.

Egiten duen hotzarekin ze erremedio, bestela izoztu egiten da bat kabinan geldigeldi. Barruko epeltasuna gorde egin behar da.

"Goizetan ez dute hitz asko egiten gidariek eta ondokoa lo egoten da askotan"

"Aste barruan txartelarekin ordaintzen dute auto gidari gehienek eta asteburuan, berriz, txanponekin edo billeteekin"

"Autoa gustatzen bazait, zenbat balio duen galdetzen diet batzuetan gidariei"

► *Bergara / 25 urte / Ipiñarriko ordainlekuan dihardu*

PIPERRAUTSA

Txistuarena

Elgetara igo nintzen joan den zapatuan, Espaloiak tiratuta. Makina bat motibo ari dira ipintzen elgetarrak horretarako, udatik hona. Asmatu dute programazioan.

Zapatuan, airean zirauen bezperako Danbakaren zaratak. Ordea, oso bestelako musika entzutera bildu ginen Elgetan ziento luze bat lagun: txistua eta pianoa, Antsorena eta Senperena. Eta, ustekabean, bi musikarion jardunak eraman ninduen denboran atzera.

Duela hamabost bat urte, musikaz idazten nuen *Arrasate Press*-en. Eta gogoan dut nola landu nuen artikulu bat trikitixa aldarrikatuz musika modernorako. Ordurako ari ziren bai Tapia eta bai Junkera trikiaren teknika garatzen eta esparru berriak jorratzen. Argi zegoen edozertarako gai zela soinu txikia, eta uste nuen haren ekarpenak nortasuna emango ziola gure musika berriari. Denborak erakutsi du ez nenbilela oker.

Hamabost urte geroago, antzeko zerbait gertatu zait txistuarekin. Ansorenak garatu egin du txistu zaharra eta ateratzen dio flautaren soinu gozoa. Baziren lehendik eginak saio batzuk txistua ezkontzeko: kantagileen moldearekin, Patxi Villamorrek 70etan, edo orkestrarekin, Pablo Sorozabalek Gernikan, edo jazzarekin Amaraunek duela gutxi. Baina Ansorenak bide guztiak ireki ditu, edozertarako prestatu du txistua. Entzutean Senperena eta Ansorena, sentitu nuen ordua iritsi dela, txistuarena.

MIKEL IRIZAR